



ttipi-ttapa



Julen SAN MIGUEL

Buruz buruko
txapeldun lehen aldiz
→ 44

2014ko irailaren 18a | XXXIV. urtea | 622. zenbakia

TOKIKOM
www.ttipi.net

Herriko bestak

Igantzi eta Urroz

ITUREN → 23

Joaldunen Eguna
irailaren 20an

LEITZA → 31

Talo egunaren harira
ekitaldi ugari hilaren 21ean

ELIZONDO → 35

Piriniar arrazako behien
lehiaketa asteburuan

ZIGA → 36

Eskola ttikien besta
irailaren 28an



ARGAZKIA: NOTICIAS DE GIPUZKOA

Estitxu ALMANDOZ | Lesakako harri-jasotzailea

«Harriak errespetua sortzen du»

Duela bortsu urte murgildu zen herri kirolen munduan eta harri-altxatzen orain hiru urte hasi zen. Pixkanaka «gustoa» hartu omen dio.

Aitzinera begira honetan segitzeko asmoa du eta Lesakako ferietan marka pertsonala egin nahi du, 100 kiloko kopa harriarekin. → 42


Ikasturte berria

Aurten 5.337 ikasle daude izen emanak eskualdeko ikastetxeetan. Bai Lapurdin zein Nafarroan, berrikuntzekin hasi dute urtea

→ 10

Elkarlanean aritzeko federazioa osatu dute Baztan, Bera, Doneztebe eta Lesakako merkataria eta zerbitzu elkarteek

«Kezka berdintsuak partekatzen» dituztela ikusita, Denok Bat Federazioa sortu berri dute Baztan, Bera, Doneztebe eta



Lesakako merkataria eta zerbitzu elkarteek.

HERRIZ HERRI → 40



Lanpostuak eta ekonomia bultzatzeko lan metodoa. → 20-21

ERREPORTAJEA → 3-5

Gozamena
delako mendian
lasterka ibiltzea

Gero eta gehiago dira mendian lasterka probatu eta afizio horri heldu diotenak. Eskualdeko bortsu mendi lasterkarik euren esperientzia kontatu digute.

ZOKKETAK → 52



Txartela egiteko deitu 948 63 54 58ra

nahi duzun argazkia, marrazkia, montarea...
sartzen ohal da!

GUZTIZ PERTSONALIZATUAK

IKASTETXE, KOMERTZIOAREN IZENA, LOGOTIPOA, helbidea...

Koskontako bidea, 7
31760 LESAKA
www.kulturkari.com



2015
egutegia



PARETAN JARTZEKOAK KONTSULTATU NEURRIAK (A3, A4...)

ASTELEHENA	ASTEARTEA Martes	ASTEAZKENA	ORTZEGUNE	Ostirala	LARUNBATA	IGANDEA
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

nahi duzun LETRA MOTAREKIN,
KOLOREAREKIN,

HOZGAILUEKIN

BERAKO
BESTAK

besta egunak, urtebetetzeak
komenituz diren data esanguratsuek

eskatu aurrekontua!

ttipi-ttapa

Koskontako bidea, 7 | 31760 LESAKA
Tel.: 948 63 54 58

MAHAI GAINEKOAK
Trokelatuak,
paper edo PVCzkoak...



SAKELEKOAK
55 x 85; 66 x 96 mm,
izkin borobilduak...



POSTERRAK
Neurri handikoak,
A1, A2, A3...



Ikusi eredu gehiago:
www.kulturkari.com/egutegiak.html



KIROLA → MENDI LASTERKETAK

Mendian gora eta behera sufirimenduaren gaineratik gozamena

Azken urteotan aunitz hazi da mendi lasterketetan dabiltzaneren kopurua

Bakoitza bere erritmoan eta helburuekin, baina gero eta gehiago dira mendian lasterka probatu, gustatu eta afizio horri heltzen diotenak. Zaletasun

hori duten eskualdeko borts mendiko lasterkarirengana jo du TTPI-TTAPAK eta euren esperientziak kontatzeko eskatu diegu.

Leitzako Euskal Herria Mendia Erronka, Senpere trail, Sarako kontrabandisten lasterketa eta korrika trail, Urdazubiko kontrabandisten lasterketa, Goizueta mendiko lasterketa, Sunbilla hasi eta akitu den emakumeen munduko maratona...

G. PIKABEA

Mendian gora eta behera, hankak minberatuta eta izterrak gogor, baina gorputzari tira. Eta horrela kilometro aunitzez. Bukaeran, ordea, sufirimendu eta oinaze guztiak arinduta, gozamena nagusi. Horixe dute mendi lasterketek.

Emakumezko zein gizonezko, gazte zein heldu, gero eta gehiago dira mendi

lasterketetan dabiltzanak. Eta eskualdean ere ugaritzen ari dira kirol modalitate honetan ari direnak. Onenen artean lehiatzen dabilta batzuk, eta maila apalagoan baina badabilta bertzeak. Mendi lasterketa taldeak ere badira, Berako Manttale, adibidez. Eta mendi lasterketa probak ere zabalitzen ari dira: Berako Maratoi Erdia, Santa Barbarara igoera eta gau lasterketa,

Gaiaren harira, ezin aipatu gabe utzi Fernando Etxegarai beratarra, maisu handia eta txapel aunitz lortutakoa. Eta gisa berean maite dute mendia Pantxika Gaiakotxea (Sara), Unai Plaza (Elizondo), Dani Narbarte (Goizueta) eta Joseba Elizagoienek (Narbarte). Norbere erritmoa eta helburuak ditu bakoitzak, baina gozatzeko egiten dute guztiek mendian lasterka.

Fernando ETXEGARAI | BERA | 42 URTE

«Gustura nabilen bitartean segitu nahi dut, ahalik eta hobekien egiten eta gozatzen saiatuz»

Nork erranen zuen Larungo maldetan etxeko ardi, behor eta ahuntzen gibeletik ibiltzen zen mutiko hura, urte batzuen buruan puntapuntako mendiko lasterkari onenetarikoa bihurtuko zela? Bada horixe izan zen Fernandoren kasua. Onartu digunez, «mendian beti ibili naiz gustura», baina inguruan mendi lasterketak egiten zirela ikusita piztu zitzaion parte hartzeko harra. Probatu eta gustatu. Duela hamaborts bat urte hasi zen mendi lasterketetan, eta urte horietan lortutako palmarsa bikaina izan da. Garaipen zerrenda amaigabea du, etxean zein kanpoan lortutakoak, eta «garaipen bakoitza bere momentuan berezia» izan omen da. Halere, 22 urterekin irabazi zuen lehenbiziko lasterketa hura ere gogoan du.

Goi mailako lehiaren daramatzan urte hauetan egin duenarekin kontent dagoela aitortu digu, «hagitz balantze ona eginen nuke». Ez da guttiagorako. Baina horrekin batera, bidean egin dituen lagunak eta ezagutu dituen tokiak ere ez ditu alde batera utzi. Lesioek ere lagundu diotela dio: «zortea izan dut. Urte aunitzez ibili naiz eta lesio gutti izandu ditut. Azken bi urteotan gehiago izandu ditut, eta adinarekin errekupeazioa ere ez da berdina izaten».

Joan den urtera arte Euskal Selektzioan ibili zen. Aurten, ordea, bere gisara dabil lasterka: «betitik izan naiz nire airera ibiltzen dena». Selektzioan zebilela entrenamenduak segitzen omen zituen, baina orain bere erara moldatzen da eta gimnasiora joateko ohiturarik ere ez duela erran digu. Hala, duen denboraren arabera saio bat edo berte egiten du: «asteazko bozpasei egunez ibiltzen naiz. Denbora gutti baldin badut eta ilundua badago, futbol-zelaira joaten naiz. Denbora gehixeago baldin badut mendian buelta bat ematen dut».



LABURREAN

- Lasterketarik ederrena: **Zegama-Aizkorri.**
- Lasterketarik gogorrrena: **Italiako Grigne du Monde.**
- Txoko kuttuna: **Larungo maldak.**
- Lasterketa aitzinetik maniarik? **Ez.**
- Oinetakoak: **Lasterkaren arabera. Lasterketa azkarra bada arinak eta mendian bada takoekin, baina markari begiratu gabe.**

Bere egun arrunt bat nolakoa den ere kontatu digu: «goizean lanea joan, gero bazkaldu, hurrekin egon edo etxean egin behar dena egin, eta ilunabar aldera, posible bada lasterka ibiltzera atera». Eguna ongi hornitua izaten du eta ez du denbora sobrante aunitzik izanen, hiru seme-alaben aita ere badelako eta emazteak eta biak etxetik kanpo lan egiten dutelako. Halere, gustuko tokian aldaparik ez, eta «ahal den bezala moldatzen garela» adierazi digu. Alferkeria alde batera utzita ateratzen da hainbertze maite duen kirol hau egitera, beretzat mendia «bizia» delako. Eta aitzinera begira bere asmoa «gustura nabilen bitartean segitzea» da, orain arte bezala, «ahalik eta hobekin egiten eta gozatzen saiatuz».

Joseba ELIZAGOIEN | NARBARTE | 28 URTE

«Burugogorra izan eta sufritzen jakin behar da, akitzean izaten den pozak aunitz balio baitu»



Probatu eta gustatu. Halaxe izan zen Josebak mendi lasterketetan egindako hasiera. Kontatu digunez, «beti ibili izan naiz lasterka. Errepideko lasterketa motzetan parte hartzen nuen». Urte hasieran, ordea, mendian hasi zen, eta geroztik «ez dut asfalto ukitzen», dio. «Hagitz gustura» dagoela erran digu eta zalantzarik gabe aitortu digu: «asfalto baino nahiago dut mendia». Mendi lasterketa du afizio, baina ez ofizio. Goizez eta arratsalde egiten du lan eta etxetik 07:00etan aterata eta 18:00etan ateratzen da lanetik. «Ahal den bezala» moldatzen da lasterka ibiltzeko: «batzuetan astia harrapatzea zaila da, baina ahal denean joaten naiz». Astetartez hiru egunez 12 bat kilometro egiten omen ditu, eta asteburuetan 25 bat kilometro. Igandeak, berriz, eguraldi ona bada, neska-lagunarekin mendira oinez joateko aprobetxatzen ditu. Gimnasio-ra, ordea, gutti: «denboraldi hasieran muskulatura lantzeko joan nintzen, baina gero utzi nuen.

Erabat kanpoan aritzen naiz». Bestazalea izana da, eta oraindik ere bada pixka bat, baina kirolaren aldeko apustua egina duenez, «aurten besta gutti egin dut. Lasterketetan ibili nahi bada zaila da besta eta kirola elkarreza». Onartu digu, «pixka bat faltan botatzen duela» eta aurten denboraldia akitutzat emanda, ez du «lagunekin besta egiteko» aukera galdu izanen. Baina besta baino gehiago da mendia beretzat: «gozatze modua da. Nire kirola aurkitu dudala uste dut». Eta ez du uzteko asmorik, «alditik aldera hobetzen segitu nahi dut». Horrela, bere ametsa noizbait Zegama-Aizkorri egitea omen da. Eta dioenez, bere «burugogorkeria» du horretan laguntzeko: «nekatua egonda ere, ez da pentsatu behargaizki zaudela. Burugogorra izan behar da, burua deskonektatu eta aitzinera segi, sufritzen jakin behar da. Momentu txarren ondotik, beti etortzen dira onak eta akitzean izaten den pozak aunitz balio du».

Unai PLAZA | ELIZONDO | 26 URTE

«Mendia libre sentitzeko toki bat da, eta aunitzetan egiten nau zoriontsu»



«Mendia libre sentitzeko toki bat da, egun guztiko haserreak botatzeko lekua... Aunitzetan zoriontsu egiten nau». Miresmen osoz mintzatu zaigu Unai mendiaz. Agerikoa da aunitz maite duela, eta horrek erakarrita hasi zen duela bi urte inguru mendi lasterketetan lehiatzen. Lasterka, ordea, lehenagotik ere ibiltzen omen zen, mendiak «aunitz erakarri eta betetzen» duelako. Goiz eta arratsalde aritzen da lanean, eta aitortu digunez, «ez da erraza» lana eta kirola uztartzea. Halere, «neurria hartzen diozu» eta lanaren arabera antolatzen ditu entrenamenduak: «lan aunitz badugu buelta motza ematen dut zakurrekin edo bizikletan. Negu aldera saio luzeagoak egiteko aprobetxatzen dut». Aitzinetik «deus antolatu» gabe aritzen omen da, «egunaren arabera, mendia edo errepide, bertzela mendiko bizikleta edo errepidekoa. Ez naiz aise aspertzen». Gimnasioa, aldiz, ez omen du «batere gustuko», eta «gutti» joaten dela erran di-

gu: «neguan zerbait, lanetik ateratzen iluna dagoelako». Gaztea izanagatik ez omen da «batere bestazalea, urtean besta kontatuak egiten ditut. Baina ez zaintzeagatik, asteburua ongi aprobetxatu nahiago dudalako baizik». Hau da, kirola egin. Halere, ez da mendian lasterka ibiltzera mugatzen. Aurten «denetarik» egin duela dio: «mendi bizikleta probak, duatloiak, mendi duatloi bat gauez, mendi lasterketa motzak eta luzeak...». Eta irailean berriz ere, mendi duatloiak egiteko asmotan da eta urtea akitu artean ere proba gehiago egin nahi ditu. Etorkizunera begira, «helburu zehatzik gabe» kirola egiten segituko du: «ez zaizkit epe luze- ra egindako planak gustatzen. Baina helburu nagusietako bat gustatzen zaidana luzaroan egiten jarraitzea da eta ahal bada lesiorik gabe». Bistakoa da ez zela geldirik egoteko jaiio, eta halaxe segituko du, onartu baitigu nekatua egonda ere, «beti dagoela zerbait motibatzen».

LABURREAN

- Lasterketarik ederrena: **Lezo-Jaizkibel Mendi Lasterketa.**
- Lasterketarik gogorrena: **Euskal Herria Mendi Erronka.**
- Txoko kuttuna: **Berako Maratoi Erdia.**
- Lasterketa aitzinetik maniarik? **Beti gosari berdina, aitzinako egunetik dena prest izatea, lasterketaren arabera motxila eta oinetakoak garbi edukitzea...**
- Oinetakoak: **Salomon marka normalean eta orain Sportiva markakoak erabiltzen hasi omen da.**

LABURREAN

- Lasterketarik ederrena: **Euskal Herria Mendi Erronka.**
- Lasterketarik gogorrena: **Euskal Herria Mendi Erronka.**
- Txoko kuttuna: **Lekarozko edozein txoko, bainerak, Bagordi edo Aritzakun, Itsusiko haitzak...**
- Lasterketa aitzinetik maniarik? **Giharrak berotzeko krema erabiltzea.**
- Oinetakoak: **Egin behar duenaren arabera bat edo bertz. Baina Sportiva marka bereziki gustuko du.**

Dani NARBARTE | GOIZUETA | 36 URTE

«Entrenatzera noala pentsatu gabe ateratzen naiz mendira lasterka ibiltzera»



Musika du ofizio eta mendia afizio. Ez, ordea, aspalditik. «Lasterka orain bizpahiru urte hasi nintzen. Mendirako afizio gutxi nuen. Eskiatzera joatea ere kostatitzaidan, baina behin joandakoan engantxatu egin nintzen. Hortik afizionatu nintzen mendira, bai oinez eta bai lasterka ere». Laiotz taldeko musikaria izateaz gain, Lekunberriko Musika Eskolan egiten du lan, eta lana arratsaldean egiten duenez, goizak aprobeztatzen ditu mendian lasterka ibiltzeko: «astean bizpahiru buelta egiten baditut, kontentu». Eta ahal bada toki berean ez: «aldatzea gustatzen zait. Hernani inguruan banabil Adarrara, Goizuetatik Artikutza aldera...». Eta entrenamendurik jarraitu gabe: «entrenatzera noala pentsatu gabe ateratzen naiz mendira. Ez dut sekula eraman entrenamendurik eta ez nintzateke gai izaneren ere». Ez dela «baterre gimnasiozalea» gaineratu digu: «etxeko *spinning*eko bizikletan tarteka ibiltzen naiz, baina posible dudana guztietan kanpora joaten naiz».

«Sufritzeko gaitasuna» ere aipatu digu: «entrenatzen dudanarekin egiten dudana nahiko gogorra da. Batzuek entrenatzeko gaitasuna dute, eta nik entrenatu gabe lasterketa egitekoa. Ez dut sekula pentsatu ezer seriorik egitea». Gozatzea delako bere helburua, mendian aurkitzen baitu «lasaitasuna, askatasuna, bakea... Tarteka oxigenatzeko behar dena». Lasterketetan, denborari begiratu gabe bukatzea izaten du xede eta elikadurari ere ez omen dio askorik begiratzeko: «gutxi zaintzen naiz. Eskerrak pastazalea naizen». Onartu digu «bizio guztiak» gustuko dituela eta gainera, «ez dut uzteko asmorik». Festa da bere beste zaletasuna: «musikaria izanda nahitaezkoa. Lanean ere erdi parrandan gaude eta udan erromeriaz erromeria, entrenamendu guztia izorratzen dut», dio umoretsu. Baina bietara moldatzen da eta horrela nahi du. 2015era begira, Leitzako Mendi Erronka egin ala ez du buruan. Festa bai, baina kirola ere bai. Dena gozatzeko.

Pantxika GAIKOTXEA | SARA | 32 URTE

«Sarara ailegatzean mendira hasi nintzen, zailak diren pata-rrak ez nituelako sekula egin»



Bineska ttikiren ama eta Donibane Lohizuneko ospitalean erizaina. Horixe dugu azken zortzi urteotan Saran bizi den Pantxika. Asti libre duenean, ordea, korrika ibiltzea maite du. Tipitak kirola egin duela kontatu digu: «dantza, eskubaloia eta atletismoa egiten nuen». Handitzean, berriz, lagunekin korrika egiten hasi zen eta «Sarara ailegatzean mendira joaten hasi nintzen. Biziki zaila diren patarrak ez nituelako sekula egin».

Egunak harat honatean pasatzen ditu: «05:30ean azartzen naiz 06:30ean lanean izateko, eta 14:30ean bukatzen dut. 03:00etan Senpereko haurtzaindegian izan behar naiz alaba gazteenahartzeko. Etxera sartu eta 16:00etan ikastolara joaten naiz alaba zaharrenaren bilat. Gero, parkera joaten gara, jostatu, krakada egin eta etxera sartzen gira. Bizilaguna 18:00 aldean sartzen da eta 18:30ean entrenamendura joaten naiz». Oro har, «bizilagunak ttikiak atxikitzen dituen edo ikastolan eta haurtzaindegian direlarik joa-

ten naiz kirola egitera». Aitortu digu, «maiz nekatua» sentitzen dela, baina «beti sartzen naiz kontent». Etxera bueltan, «azken muxu atxiki, jan eta lo». Astean hiru aldiz entrenatzen du eta horietako bat Sara Korrika taldearekin egiten du. Gainerakoak bakarrik, Sarako mendietara. Biziki gustura sentitzen da: «iluntzean Larrun gainean naizelarik, bakarrik, libre sentitzen naiz. Mendi artean bizitzea izugarriko santza da. Mendiko usaina eta aire sanoa maite ditut». Aurten lasterketa «gutti» egin omen ditu, baina alaba ttikiak bederatz hila bete dituela kontuan hartuz, «balantze aski positiboa» egin du: «ene haurdunaldia eta gero ez nuelako uste hain fite berreskuratu nuenik». Egindako lasterketak «beti ongi» bukatu dituela dio eta «plazer handia hartzen ari naiz entrenamenduetan». Familia, lana eta kirola bateragarriak direnaren adibide garbia dugu Pantxika eta horrela segitu nahi du. Gainera, adierazi digunez, «ez dut sekula amore emaiten».

LABURREAN

- Lasterketarik ederrena: **Goizuetako Mendi Lasterketa**.
- Lasterketarik gogorrena: **Hondarribikoa**.
- Txoko kuttuna: **Goizuetako edozein txoko**.
- Lasterketa aitzinetik maniarik? **Ez**.
- Oinetakoak: **Momentuan momentukoak erabiltzen omen ditu, aldiro desberdinak. Ez omen du marka berezirik erabiltzen**.

LABURREAN

- Lasterketarik ederrena: **Euskal Trail, Mayi lagunarekin egina**.
- Lasterketarik gogorrena: **Hiru kasko, Mayirekin egina**.
- Txoko kuttuna: **Olhain mendia, gaueko 8etan**.
- Lasterketa aitzinetik maniarik? **Ez**.
- Oinetakoak: **Urteak omen daramatza oinetako berak erosten: Asics Trabucco etxeokak**.



Nire txanda
Zuriñe ZUBILLAGA

Nouvel

Haridura aurpegia jarri du, asaldatu egin da, begiak zabal zabalik jarri eta irribarrez hasi da. Baina berehala eman dio negarrari. Umearentzako dena da berria; estimuluaren zaparradaren azpian dabil igerian, hauek guztia irentsiko duten beldurrez. Aspaldian irentsi genituen guk ordea. Gainestimaturik gaude, gudan zuen efektu liluragarri bezain harri-garri hark jada ez du efekturik. Badirudi ez gaituela ezerk harritzen. Baina bada gudan harri-dura behin eta berriro eragiten duen fenomeno bat: bizitza bera. Bizitza da ezustean harra-patzen gaituena. Espetro ez dugun uanean bertan, ezusteko bira egin eta galdurik uzten gaituena. Eta bizitzaren esperientzia honetan zaharrena ere izango da berria. Ez baitigu inork ere kenduko berri izatearen lelo aurpegia, ez eta Nouvelaren txarteltxo bizkarretik. Salbuespenak salbu.

«Gainestimaturik gaude, gudan zuen efektu liluragarri bezain harri-garri hark jada ez du efekturik. Badirudi ez gaituela ezerk harritzen»

Ezpala
Aitor AROTZENA

800 Dukado, 400 emakume

Lehen aldiz soil-soilik emakumeei zuzendutako mendi maratoia burutu berri dute Sunbillan. 42 kilometro, 21,6... Erroka ezberdinei 400 emakumek erantzun diete, bakoitza bere historiarekin, familia, lana eta kirola uztartzeko zailtasunekin... Helmugan, buruan gelditzen den irudia: 21 kilometro egin berri dituen ama korrikalaria bere umeari bularra ematen. Mundialak zarete!

Nabarmentzekoak



Maite MAIORA
800 Dukado garailea

Estreinakoz egin da Sunbillan emakumeei zuzendutako 800 Dukado mendi maratoia. 42 kilometroko proba burutzen lehena Mendaroko korrikalaria izan zen, 3 ordu eta 52 minututan.



Julen SAN MIGUEL
Buruz buruko txapelketaren finalera bitan ailegatua zen doneztebarrak eta bietan galdu egin zuen. Irailaren 6ko finaleran aldiz, 19-30 irabazi zion Urrizari.

Hirugarrenean bai. Buruz buruko txapelketaren finalera bitan ailegatua zen doneztebarrak eta bietan galdu egin zuen. Irailaren 6ko finaleran aldiz, 19-30 irabazi zion Urrizari.



Antonio ALUSTIZA
Hamabosgarrena Uharten

Uharte-Arakilgo artzain zakur lehiaketa hamabosgarren aldiz (hamekagarrena segidan) irabazi du aresoarrak, Jai txakurrarekin, Patxi Etxeberria zenaren errekorra berdinduz.

Aztera begira → 2004-IX-23 / TTPI-TTAPA 382 zk.



Sunbillako Ulibeltzak elkartearen egoitzak 25 urte

1969an hasi zen Sunbillako gazte koadrila bat biltzen, herriaren alde zerbait egin eta elkarte bat osatzeko. Hiru urte pasatu ondotik, 1972an aurkeztu zituzten estatutuak eta araudiak Nafarroako Diputazioan, Ulibeltzak elkartearen sortuz. Behin elkartearen sortuta, biltzeko leku baten bila hasi ziren. Lehenbiziko urteetan apezaren etxean egin zituzten bilerak. Gero, herriari labaderoa eskatu zitzaion, hura moldatu eta elkartearen egiteko. Baina ttiki geldituko zela susmatu eta Leku-Eder karrikan bajera bat erostea erabaki zuten 1978an. Bazkideek auzolanean moldatu eta 1979k irailaren 23an ireki zuten gaur eguneko egoitza.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usua Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Konbi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraalde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz

Fundazioaren Presidente Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia
Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	40€	Europa	59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Ipar Euskal Herria	59,50€	Amerika eta Australia	124€	Leitza	17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Bortziritako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Euskal pilota

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Orain dela minutu gutxi, ETB1en ari nintzen ikusten pilota partidu bat, Azpeititik ematen ari zirena, San Ignazio egunarekin, eta esatariak (Xabier Euzkitze eta Joxean Tolosa) euskarari behar duen prestigio eta tornua ematen ari zitzaizkion bitartean, artekari, batere lotsarik gabe, honako esaldi hauexek entzuten zitzaizkien oso ozenki: *zien a setenta; zien a doszientos; zien colorau, quinientos azules, doszientos azules, mil a cuatro, mil a dos*, eta abar, eta abar...

Argi dago euskal pilota, jende askok gogotik maite eta estimatzen duela, ez bakarrik Euskal Herrian, baizik eta baita mundu zabaleko beste leku askotan ere. Eta, segur aski ere, euskaldun asko harro samar sentituko dira, Euskal Herrian praktikatzen delako halako kirol dotore, entretenigarri eta garbia. Hala eta guztiz ere, argi eta garbi dago pilota enpresarientzat, nonbait, euskarak ez duela izan behar garrantzi handirik, eta deus baino lehen, gaztelaniari ematen diote lehentasun osoa dirua lortzeko, apustuen bidez. Antza denez, bost axola zaie euskarari kentzea prestigio, ospe eta garrantzi guztia, bertako hizkuntza zaharrena izanda ere, gainera, datu bat emateagatik, esan behar da, Kike Amonarrizek zuzentzen duen *Tribuaren berbak* izeneko programan, jakin genuela Azpeitia dela Euskal Herri osoko hiririk euskaldunena, bere biztanle kopurua gogoan hartuta. Baina, zoritarrez, Asegarce eta Aspeko enpresariak (Karlos Argiñanok eta abarrek) hamaika mila aldiz frogatu digute gai hau bost axola zaiela, eta berdin-berdin zaiela arazo honi dagokionez, pilota partiduak Logroñon, Tuteran eta Sartagudan jokatzea edota Iruñean, Zarautzen, Leitzan, Oiartzunen eta Arbizun, esate baterako; euskara beti zeharo baztertu, zokoratu eta mespretxatua! Beste bi adibide aipatzearen, esan dezagun, Xabier Eguzkitzek, duela urte batzuk kontatu zuela ETB1en, abenduaren hirurako (Euskararen Eguna) proposatu zitzaizela pilota enpresariei, egun hartan ETB1en eman behar zituzten partiduetan, artekari bat euskaraz aritzea. Hasieran, onartu omen zuten, baina azken orduan atzera egin omen zuten. Eta bigarrena, neronek adierazi behar dut, Labrit pilotalekuko telefono mugikorrera deitu dudana guztietan, sarrerak gordetzeko, beti aritu behar izan dudala gazteleraz, euskaraz ez dutelako ematen zerbitzu hori, eta, gainera, tamalez, ardura-dun hori ezagutzen dut.

Eta hau guztia egiten dute *euskal pilota* delakoaren izenean. Nik, egia esan, inoren latsa eta auzo latsa sentitu ohi dut kasu horietan, baina, dirudienez, pilota enpresariak batere ez. Noiz arte jarraitu beharko dugu pairatzen tamaina honetako irain, laido eta isekak. Badakit Asegarce eta Aspe enpresa pribatuak direla, baina gogoratu beharko genuke, ematen duten zerbitzua publikoa dela, eta bestalde, ETB1 erabilita. Noiznahi ere bada garaia erakunde eta instituzio publikoek, alderdi politikoek, euskararen aldeko elkarteek, mugimenduek, gizarte eragileek, Eusko Jaurilaritzak, Euskaltzaindiak, Euskararen Gizarte Erakundeak Kontseiluak eta abarrek seriozki esku har dezaten afera honi dagokionez.

UEMAri ezarritako betoaz

Eneka MAIZ eta Jon ABRIL (UEMAko Zuzendaritza Batzordea)

Iraingarria zaigu UPN, PP eta PSNko ordezkari parlamentarioengandik jasotako mespretxua. Gertatutakoa harrigarria eta ez ohikoa bada ere, UEMAK Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza batzordean agerraldia egiteko EHBildu eta NaBai talde parlamentarioek egindako eskaerari ezezkoa eman diote. Horretarako, erabili duten aitzakia-arrazoia UEMAK bere egoitza nagusia Bizkaian izatea da. Beraien esanetan, UEMA arrotza omen da Nafarroan.

Orain arte, administrazio ordezkariak jaso dituen agerraldi eskaeretan ez dio betorik ipini inolako erakunderi. Eta are gutxiago erakunde publikoei. Gauzak honela, oso larritzat jotzen dugu UEMARI ezarritako betoa. Hartutako erabakiarekin, Mankomunitatea bera ez ezik euskalgintza osoa mespretxatu eta gutxietsi dute. Era berean, administrazio publikoen arteko harreman normalizatuak garatu eta elkarlanean aritzeko beharrei bizkar eman diete Nafarroako Parlamentuko ordezkariak.

UEMARI betoa ezarri dioten horiei gogora ekarri nahi diegu, UEMA udalerrri euskaldunak biltzen dituen erakunde publikoa dela. Mankomunitateko kide diren 72 udaletatik 14 dira Nafarroakoak. Nafarroako udal horiek, UEMAK, goi mailako hainbat administrazio publikok eta beste hainbat gizarte eragilek elkarlanean dihardugu. Administrazio publikoa euskaldundu, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatu eta euskararen arnasmuneak sendotu eta hedatzeko helburuarekin. (...)

Nafarroako Gobernuak gure herrietan daukagun errealtate soziolingusitikoa onartu gabe jarraitzen du. Ez gaitu kontutan hartu nahi euskaraz bizi nahi dugun Nafarroako herritarrak. Eta horregatik, Nafarroako euskararen arnasmuneak ezabatu eta desagerrarazteko politikak ditu abian. Euskararen lege murriztaileak herritarrei onartzen dizkigun hizkuntza eskubideak ere ez ditu errespetatzen.

Laria da Nafarroako euskaldunok bizi dugun egoera. Eta UEMAK, Nafarroako hainbat udalekin elkarlanean, herritarrek euskaraz bizitzeko duen borondateari arnasa eman nahi dio. Bide horretan, UEMAREN izenean Nafarroako Parlamentuko bi lan saiotan parte hartu genuen, 2013ko azaroaren 14an. Mankomunitateak UEMAKo udalerrietako liburutegi eta osasun etxeetan eskaintzen diren zerbitzuen gaineko egindako azterketa eraman genuen parlamentura. Hizkuntzaren ikuspegitik daudden gabezia nabarmenak azaleratu eta euskarazko zerbitzuak bermatzeko neurri zehatzak proposatu genituen. Era guztietako erantzunak jaso genituen orduan, ezezko borobilak, dudakoak eta baiezkotako argiak. Gaiari lotuta EH bildu eta NaBai talde parlamentarioek aurkeztutako mozioak ere ez zuen behar besteko babesik jaso Parlamentuan.

Zailtasunak zailtasun, jaso berri dugun betoarekin ere ez dugu bidea agortutzat emango. Udalak, herritarrak eta hainbat eragilerekin eskuz esku jarraituko dugu herritarren hizkuntza eskubideak errespetatu eta euskararen arnasmuneak sendotzeko bidea urratzen. EHBildu eta NaBai talde parlamentarioak ditugu bidelagun eta eskertu nahi diegu egiten ari diren ahalegina. Baina gaurdaino eraiki ditugun elkarlanerako oinarrien gainetik, aipatu helburuen mesedetan lan egin nahi duen ororekin aritzeko prestutasun osoa ere agertu nahi dugu. Sinetsita baikaude, pixkanaka, indarrak metatuz euskararen arnasmuneak zabalduko ditugula Nafarroan eta Euskal Herri osoan.

Irakurleak mintzo

Nere sabaritik

Pello TELLETXEA Boroso

Pozik eta gustura egin genuen Ezkurratik itzulia, nire lagun haundia den Miguel Anjel *Dolare gaztia* eta nik, irri eta parra nerbioak eta abar, baina eman zion Miguel Anjelek bai kementa eta indarrarekin, Nafarroako 3. mailako txapela lortu zuen. Orain lasai dago.

Niretzat gozamena Ezkurran moztea. Aizkora munduan Euskal Herri osoan Ezkurra herri berezia izan dugu, partikularra.

Nire atta zenaren atautxi Ezkurrakoa zenez, kondaira asko izaten zituen. Behin baino gehiagotan Olaitz alde-
tik heldu ginenean, Dendarineko Joxe zenak eta biek kontu pila bat kon-
tatzen zituzten. Ardien eta behien lanak egin-
da, ilargiaren argiarekin etortzen ginen, ni atzetik mutiko koxkorra nintzela. Zehatz mehatz esaten zituzten aizkolarien desberdintasunak: «batek eskumuturrean indarra zuela», «petxuak estuak zituela», «5 edo 6 kilo hezurretan diferentzia zego-
la», «egokia eta libre zela»... eta horrela bide osoan.

Eta nola ez, han sartzen ziren Ezkurrako aizkolari haundiak, Olako Joxetik hasita, garai hartan Nafarroan zen hoberenetakoa. Zoritzarrez, Arraratsen prestatzen zegoela, odol berotze batean hil zuten. Anaia Martin, eta iloba

Jesus, orain Saldiasen bizi dena. Lan bikaina egin omen zuen Ibiko Mindegitar bi anaien aurka, Komenzaneko bordako *kañonak* korte bikaina omen zuen. Joanesek noizbait zakurren haragia jan omen zuen. Errandeneko Fausto, bere amaren iritziz «oilaskua besterik jaten ez zuena». Nire laguna, gizon langilea, aizkorazale amorratua eta ezkur-
rrar «autentikoa» den Ciprianoren aita zena Hilario Telletxea, eta abar. Eta nola ez, denen gainetik, bere anaiak ere hartuta, Miel Mindegia, 40 urtez Euskal Herri osoan hotzikara, beldurra eta errespetua sortu duen aizkolaria.

Nor baino nor, aurrez aurre jarri direlarik bi aizkolari plazan, Ramon Latasa eta Donato Larretxea hartuta, haundiena, maisu haundia eta egurra mozteko makina bat izandu da Miel.

Entzun genuen Jon Rekondo gazteak desafioa bota diola Larretxeari. Ez dugu sekula ikusi ez balantzan eta ez alderoka plazan. Gizon bat bizkorra eta gogorra ikusi badugu, hori Donato izandu da.

Aukera izanen ahal dugu bere indar beltz hori apustu batean ikusteko?

Bukatzeko, urtero bezala, ikusgarria Sunbillako ekitaldia. Detalle bikaina, Larretxeak eta Felixek Miel Mindegia-
ri eskua hartzea. Eta aipagarria, aspaldian isilik aizkoraren alde lana egiten ari den Antton Espelosin. Zorionak!



Bota bertsoa

Ekhiñe ZAPIAIN ARLEGI • Doinua: Iparragirre abila dela

Baztan-Bidasoko XXVII. bertsopaper lehiaketan 1. saria (11-14 urte)

Ez da erraza izan, baina azkenean lortu duzu

Le(he)ngo urtean egin nuen nik
hanka sartze bat sakona
maite nuela erran nion ta
ez zu(e)n izan emaitz ona
orain ezin begitu
lotsa nola gainditu
lortu nahian zoriona
baina momentuz ez naiz ausartzen
eta haxe da dogona.

Neretzat bertze mutikorikan
ez dago mundu osuan
klasian hasi eta lortu dut
jartzea bere onduan
solasin hasi eta
harriduraz beteta
ze gustura orainguan
mutiko horrek ez zulako le(he)n
futbola baizik buruan.

Mikaela Etxenike
Iruritakoa,
nire ama

Elias GAMIO

Ortzeguna da, abuztuak 28. Urduri nago, badakit nire amaren ametsak gaur puztuko direla, baina berak bere esperantza ttiki hori dauka, eta ezin diot inolara ere ukatu. Arratsaldeko 7ak dira, amaren deia jaso dut.

«Kaixo ama!», ez dit erantzuten, negarrez dago, telefonoa eskegi du. Nioen bezala bere ametsa ez da posible izan. Baina nire amaren ametsak ez betetze horretan, ez dut nahi nire haraneko politikoe-
ren probetxuak ateratzea, ez bata nola bertzeak ere, inork ere ez.

Laburbilduz, nire ama Mikaelak bere baserri ondoan lehor bat *ilegalki* eraiki zuen. Hortaz, legeak legeak direnez (eta denendako ba-

lira?), legea bete eta lehorra bota behar izan du. Nire amak bidean aurkitu dituen egoera, baliabide eta pertsonen aholkuak jarraitu arren, ezin izan du bere lehor hori eraiki.

Azkeneko batzarrean, Elizondoko alkatearen hitzak hauek izan ziren: «Mikaelak 7.000 euro UPNren erruz galdu ditu»; eta ni bere semea naizen horretan, ez dit hitz horiek inondik ere onartuko, hitz horiek gezur hutsak direlako. Nire amak bere 7.000 euroak bere temazukeriaz eta nekazaritzarako duen pasioaren erruz galdu ditu. Hortaz, argi utzi nahi dut, nire amak ez dituela 7.000 euroak UPNren-
gatik galdu. Beraz, ez dut nahi nire amaren egoeraz inork inolako probetxurik ateratzea. Argi gera dadila nire amaren diruan berak bakarrik duela zerikusia.

Azkenean lortu dut nire amarekin solastea; lasaiago dago, eta Anje Duhalderen *Ama Eus-*

kal Herriaz naiz nahigabetua entzun dut bat batean nire barruan eta hitz hauek barnetik atera zaizkit berarentzat: «ama, zu zara Baztan-
go andre langileena, honratuena, onena eta batez ere euskaldunena. Zure ingurukoak inork baino hobeki zaindu dituzu, zure inguruak inork baino berdeago mantendu dituzu, eta gehien poztzen nauena hortara bultzatuko nauzula, eta euskaraz. Ama, eskerrik asko zure ametsak betetzeko egiten duzun lanagatik. Esker mile, eta jakizu, zu bezalako pertsonekin Baztan bizirik legokeela, seguru! Muxu, eta ez aldatu, zure ametsak berre-
raikiz berriz ere aurrera aterako zara. Maite zaitut.

Hitz hauekin nire amaren malkoak nire bihurtu dira eta zer kasualitatea, orain Mikel La-
boaren *Izarren hautsa* kanta nire burura dator, horrekin dena bukatutzat emanaz.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57

Prentsatik bildutakoak



«Duela hiru urte probatu nuen harria. Hasieran, gogorra egin zitzaidan, dena zen beltza. Denbora behar izan nuen gozatzeko. Baina apurka hobera zoazela ikusi, eta harrapatu egiten zaitu. Hamar bat erakustaldi egin ditut azken bi urteetan».

«Jendeak galdetzen du: Nola hasiko zara harriarekin? Bada, gustatzen zaidalako!»

Estitxu ALMANDOZ
Lesakako harrijasotzailea
BERRIA 2014.08.10



«Oso inozoak izan ginen irudikatzen eskolak ekarriko lukeela hizkuntzaren egoeraren iraultzea berak bakarrik. Ikusi da ezetz: ezinbertzekoa da eskola, baina ez da aski. Behar da eskolatik kanpoko lotura. Euskaraz ikasten duten ikasleak benetan euskal hiztun bilakatzeko, hori da kontua: eskola ez izatea ohitura bat haurren hizkuntzaren bizipenetan».

Paula KASARES
Baztango eusk. teknikaria
BERRIA 2014.08.08

11 galdera labur

Nor dugu Idoia Indaburu?

Hemezortzi urteko saratar gaztea eta Seaskako ikasle ohia naiz.

Zein afizio dituzu?

Denbora libre gehiena herriko plazan, kalakan, nere lagunekin pasatzen dut kafe baten inguruan. Udan hondartzara joan eta neguan, ahal dudalarik mendira joatea gustuko dut eskiatzen ibiltzeko.

Asteburuko planik ederrena?

Larunbatean eguerdi arte lo egin, amak sukaldatutako bazkari goxo bat jan, arratsaldean lagunekin promene ibili eta arratsean animaleko besta egin igande goizeko eguzkia jeiki arte.

Nola bizi dituzu Sarako bestak?

Saratar batentzat sakratuak dira!

Urtero kristoienak dira, aldi oro momentu goxoak pasatzen ditugu lagunaren artean.

Zein da egunik politena?

Igandea.

Plazan, gaiteroak, musikariak,

joaldunak, ahate jokoa eta auto eta karro desfilea ikusten ahal dira. Urtero gazteek karro harrigarri eta irringarriak eraikitzen dituzte. Ainitz maite dut Saratar gazte ta zahar biltzen baikara herriko plazan.

Ekitaldirik maiteena?

Astearte gaueko Gaztetxeko gaualdia. Urtero gaztetxeak gai bat hautatzen du eta jendeak gai hortatik moztar bat asmatu behar du. Aurtent « fluo » gaua izan dugu gaia.

Eguneko ala gaueko besta?

Bata bestearekin doa. Egurditan hasita biharamunean oraino xutik izatea da desafioa!

Bidaitzea gustuko duzu?

Paisai berri batzuen deskubritzea beti plazer bat da. Bisitatu dudana tokirik politena Kortsika da.

Sarako xokorik ederrena?

Bereziki usotegiak maite ditut. Lizarrietako lepoa igota bista zoragarri batzuez gozatzen ahal da.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Ez dut oraino finkatua baina ikasketen ondotik, lana atzeman nahi nuke eta luzaz nere familiatz eta lagunetaz gozatzea espero dut nere sortherri ttikan.

Amets bat?

Nere ametsak gauero desberdinak dira.



Idoia INDABURU → Sarako gaztea

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA · T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimabako@gmail.com

- ▶ TDT instalazioak
- ▶ TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- ▶ Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- ▶ Satelite bidezko interneta
- ▶ Digital + banatzaile ofiziala

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!
Berria erosi taldea

URBEN ARKITEKTOAK
ETXEGINTZAN AHOLKULARITZA

ENERGIA ZIURTAGIRIAK
TASAZIO HOMOLOGATUAK
PERITAZIO INFORMEAK

ZAHARBERRITZEAK
ERAIKUNTZA
PROIEKTUEN GAUZATZEA

ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK (ITE)

TELF. **688 88 77 77** estudio@urbanarquitectos.com

URBEN EASO 77 S.L. ARANTZA, AZKILLARREA 23. DONOSTIA, EASO KALEA 77,7°. www.urbanarquitectos.com

HEZKUNTZA

IKASTURTE BERRIA → IKASTETXEETAKO DATUAK

Erreforma artean 5.337 ikaslek hasi dute ikasturtea

TTIPI-TTAPA

Baztan, Bortziriak, Bertizarana, Malerreka, Leitzalde, Urdazubi-Zugarramurdi, Saraeta Senpereko 5.337 ikaslek hasi dute ikasturte berria. Hegoaldean, protesta artean bada ere, LOMCE legea aplikatuko den lehenengo ikasturtea da. Eta Ipar Euskal Herrian,

astea luzatu egin dute; asteazkena egun librea izatetik egun erdiko eskola eguna izatera pasatu da. Baina gainontzeko egunetan lehenago bukatuko dituzte eskolak. Horrez gain, erreformarekin aisialdiari garrantzia eman nahi diote.

Bertzalde, ikasturte honetan iaz baino 87 ikasle gehiago dira.

BIGARREN HEZKUNTZA / KOLEGIOA

BIGARREN HEZKUNTZA			
	A eredua	B eredua	D eredua
BAZTAN	23	0	284
Lekaroz	23		284*

* 2 ikasle behar bereziko taldekoak dira.

BORTZIRIAK	13	39	266
Arantza IP			9
Bera (Toki Ona)	13	39	212*
Bera (Labiaga Ikastola)			45

* 2 ikasle zailtasun bereziak dituzten taldean daude.

LEITZALDEA	0	0	174
Goizueta			14
Leitza (Amazabal)			160

MALERREKA	0	0	166
Doneztebe (Mendaur)			166

XARETA	146	90	11
Senpere (Arretxea)	146	90	
Urdazubi-Zugarramurdi			11

GUZTIRA	182	129	901
----------------	------------	------------	------------

2014-2015 Guztira: 1.212	↑
2013-2014 Guztira: 1.155	% 4,94

BATXILERGOA

BATXILERGOA			
	A eredua	B eredua	D eredua
BAZTAN	6	0	116
Lekaroz	6		116

BORTZIRIAK	0	0	102
Bera (Toki Ona)			102

LEITZALDEA	0	0	52
Leitza (Amazabal)			52

GUZTIRA	6	0	270
----------------	----------	----------	------------

2014-2015 Guztira: 276	↓
2013-2014 Guztira: 292	- % 5,48

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAK

2014/2015

	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA		
	A eredua	B eredua	D eredua	A eredua	B eredua	D eredua
BAZTAN	1	0	258	25	0	501
Almandoz IP			1			12
Amaiur IP			11			23
Arizkun IP			10			38
Arraioz IP			7			11
Azpilkueta IP			3			4
Baztan Ikastola			73			128
Elizondo (S. Fco. J.)	1		86*	25		155*
Erratzu IP			15			25
Gartzain IP			3			11
Irurita IP			28			53
Oronoz IP			13			31
Ziga IP			8			10

* D-PAI eredua.

BERTIZARANA	0	0	24	0	0	23
Legasa IP			13			9
Narbarte IP			11			14

BORTZIRIAK	12	11	275	11	39	514
Arantza IP			21			34
Bera (Ricardo Baroja)			62			141
Bera (Labiaga Ikastola)			43			99
Bera (Jesusen Bihotza)	12	11		11	39	
Etxalar IP			32			46
Igantzi IP			16			43
Lesaka (Irain IP)			55*			88
Lesaka (Tantirumairu)			46*			63

* 2 urtekoak barne

LEITZALDEA	0	0	114	0	0	243
Areso IP			8			18
Goizueta IP			19			45
Leitza IP (Erleta)			87			180

MALERREKA	2	0	161	9	9	322
Beintza-Labaien IP			2			6
Doneztebe (S. Migel)	2		92	9	9	223
Ituren IP			27			38
Saldias IP			3			3
Sunbilla IP			37			52

XARETA	70	164	138	185	206	139
Sara (Publikoa)		13		5	20	
Sara (St. Joseph)		46		22	44	
Sara (Olhain Ikastola)			56			56
Senpere (Publikoa)	20	90		77	77	
Senpere (Amotz publ.)	26			37		
Senpere (Zaldubi ikas.)			34			53
Senpere (St. Joseph)	24	15	27	44	65	
Urdazubi-Zugarramurdi			21			30

GUZTIRA	85	175	970	230	254	1.742
----------------	-----------	------------	------------	------------	------------	--------------

HEZIKETA ZIKLOAK

	HEZIKLETA ZIKLOAK					
	OLH	Prest.	HL KP	Erdi M.	Goi M.	
BAZTAN	18	16	26	78	25	
Elizondo	10	8	16	0	20	6
Lekaroz				29	10	18
				39		7

BORTZIRIAK	0	0	24	28		
Bera (Toki Ona)			24	28		

XARETA	0	0	0	178		
Senpere (Laborantza)				178		

GUZTIRA	18	16	26	102	231	
----------------	-----------	-----------	-----------	------------	------------	--

2014-2015 Guztira: 393	↑
2013-2014 Guztira: 373	% 5,37

HAUR HEZKUNTZA

2014-2015: 1.230	↓
2013-2014: 1.262	- % 2,54

LEHEN HEZKUNTZA

2014-2015: 2.226	↑
2013-2014: 2.168	% 2,68

HIZKUNTZA EREDUAK

A eredua	Erdara hutsean
B eredua	Mistoa
D eredua	Euskara hutsean

IGANTZIKO

BESTAK 2014

ttipi-ttapa | 622 zbk
2014.09.18Z

11

IRAILAK 20 LARUNBATA

11:00 Frontoian MARMITAKO txapelketa eta dastaketa, talde bakoitzak 20ko saria eramanen du. **16:00** PLATER TIROKETA Ziobin. **20:00** HERRIKO DANTZARIEN emanaldia



IRAILAK 21 IGANDEA

10:30 karrika buelta txistulariekin. **11:00** haurren herri kirolak, Irisarri-Frain- Basaburua-Bera taldeen arteko konbinada. **11:30** ARDI-ILE MOZKETA erakustaldia. **12:00** X. GAZTA LEHIAKETA eta NAFARROAKO ARDO DASTAKETA. Haurrentzako mosto dastaketa ere izanen da!. **13:00** ARTZAINA: NAFARREN SENA PASAPORTEAREN zozketa frontoian. **14:00** JUBILATUEN BAZKARIA, Txartelak betiko lekuetan hilaren 17a arte. **16:30** XXXIV. ARTZAI ZAKUR lehiaketa. **18:30** kankailu eta buruhandiekin herrian barna karrika buelta herriko trikitilariak eta Lesakako trikitilari musika elkarteak alaituta. **19:00** Gazta eta opil dastaketa

GORA SAN MIGELAK!
borzrudo
IMPRESA - HOPISTEGIA
948 631 521
material guztietan inprimatzeko dugu
hamisetak / oparitzeko artikulua

Canon Bidasoa

- Multifunzioen konpontze eta salmenta.
- Ordenagailuen konpontze eta salmenta.
- Zerbitzu teknikoak. **Ongi pasa bestak!!**
- Kontsumibleak.

Santiago kalea 7, Irun info@cbc-bidasoa.es
943 631818

JOSE AGERRE pinturak



PINTURA LANAK OROKORREAN

Kanpo eta barneko pintura
Barnizatze eta lakatzak
Parket Flotatzaila jartzen dugu

610 221 521
BERRIZAILA



2015_{eko}
egutegi pertsonalizatuak

Kulturkari
disenyo, grafika, publikazioak

Urte osoan
eskura
izateko!



Mahai gaineko egutegiak
Modelo ugari aukeran
Trokeltatuak,
paper edo PVCzkoak...



Paretan jartzekoak
Kontsultatu neurriak
hilabeteak ilargiekin,
euskaraz, elebitan...



Posterrak
Neurri handikoak
A1, A2, A3
paper lodian



Sakelekoak
55 x 85 mm
66 x 96 mm
Izkin borobilduak

ttipi-ttapa

Koskontako bidea, 7 | LESAKA | 948 635 458 | www.kulturkari.com | kulturkari@ttipi.net

Carlos Txoperena
mendi garbiketak eta landaketak
ITXITURAK

*Ongi pasa
Sarrungidatoki!*

Tel: 948 637 477
637 466 124
LESAKA

OKILA
zurgindegia

- tarimak, leihoak, atek, eskailerak...
- obretako lanak orokorrean

Lander Sein
Mikel Anburua

bai
euskara
zerbitzuak
euskara

On egin janak eta kalterik ez edanak!

607 88 39 68 · mikel@okila.eu
Piedadeko auzoa, 32 · IGANTZI

ONGI PASA
BESTAK!

Ingurumen Zerbitzuak

ezpala

- PINADIEN BALORAZIOAK
- LUR NEURKETAK
- KARTOGRAFIA, PLANOAK ...
- INGURUMEN TXOSTENAK OROKORREAN

ANDRES ZELAIETA ELTZAUDIA
IGANTZI - LEGASA · T. 606 31 45 26
andreszelaieta@hotmail.com

LA VILLA
JATETXEA



Ortzirala, larunbata eta
igandetan afariak

ONGI PASA BESTAK!

K. Nagusia, 14 · IGANTZI (Nafarroa)



IRAILAK 26 ORTZIRALA

16:00 MUS ETA PARTXIS lehiaketa, Biltoki Ttikik antolatuta. **18:00** DANTZA-JAZZ ikuskizuna frontoian. **20:00** ALTXAFERUA. **Ondoren** kankailuak eta buruhaundiak txarangarekin karrika buelta herrian barna. **24:00** KONTZERTUAK: Haxotz, Estu eta larri eta Kalera taldeekin (Gazteek antolatuak)



IRAILAK 27 LARUNBATA

11:00 karrika buelta gaitero, buruhaundi eta kankailuekin. **12:00** aparkaderoan Saka ganadutegiko haurrendako animaliak. **12:30** TOKA TXAPELKETA frontoian. **18:00** HERRI KIROLAK: Nafarroako Arpana txapelketa mixtoko finala **20:00** ELEKTROPATXARANGA. **22:00** Dantzaldia Oharkabe taldearekin.

IRAILAK 28 IGANDEA

10:30 Gaiteroak. **11:00** SCOOT erakustaldia frontoian, HS2ren eskutik. **17:30** PILOTA PARTIDAK: Mitxelena-Olaizola, Errandonea-Martinezzen kontra eta Mikel Goñi-Gorrotxategi, Gonzalez-Eulateren aurka. **Ondoren** MUXIKOAK frontoian. **20:00** TXARANGA herria animatzen



IRAILAK 29 IGANDEA SAN MIGEL EGUNA

10:30 karrika buelta txistulari eta ezpata- dantzariekin. **11:30** MEZA NAGUSIA herriko abesbatzak kantatua. **Ondoren** bandera arbola doinuari dagokion ikurrin AGURRA plazan eta herriko EZPATA-DANTZARIEN saioa. **17:00** Herriko trikitilariekin trikipoteoa. **18:00** Herriko Pilotarien PILOTA PARTIDAK: Elzaurdia-Otxoteko, Telletxea-Txoperenaren aurka eta Lazkanotegi-Mendy, Canabal-Aldaberen aurka. **21:30-00:30** Dantzaldia Irune eta Itxasorekin.

IGANTZIKO

BESTAK 2014

ttipi-ttapa | 622 zbk
2014.09.18

| 13

IRAILAK 30 ASTEARTEA

09:30 Herriko trikitilariekin trikipoteoa. **10:00** Puzgarriak, wii frontoian. eta laser-tag oztopoekin. **10:00-12:00** PINTXO POTEA igantziko ostatueta **12:00** BETIZUAK txarangak alaituta. **14:00** HAURREN HERRI BAZKARIA zentroan. **14:00** Baratzondon HERRI BAZKARIA Egaña eta Sus-



traí Colina bertsolariekin eta txarangarekin. **14:00** BAZKARI autogestionatua gaztetxoentzako. **15:00** PUZGARRIAK. **18:00** Haurrendako BERENDUA. **18:30** BONBA JAPONIARRAK aparkalekuan **19:00** Dantzaldia Treku eta Alabarekin. **21:00** Dantzaldia Treku eta Alabarekin.

yanci
harrobiak

ONGI PASA BESTAK!

Unanue auzoa, 18 - 31790 - Igantzi
T. 948 63 72 88 - F. 948 63 75 89
lcarrillo@hyanci.com - www.hyanci.com

TALOTXA
IGANTZI ERAIKUNTZAK



Ongi pasa bestak!

Piedadeko auzoa, 8 - 31790 Igantzi (Nafarroa)
608 20 21 26 - 618 90 18 10



Jose Canabal

Instalazio elektrikoak
orokorrean

**ARGIZTAPENA
MATXURAK • ALARMAS**

ONGI PASA BESTAK!!

T. 666 57 58 99 • 948 638 039
IGANTZI
josecanabal68@gmail.com



**Igantzi Udalak besta onak opa dizkizue
igantziar eta bisitari guztiei**

BERA

GIZARTEA → IRAILAREN 27AN

Gure Txokoako zuzendaritza berria izendatzeko batzarra

Biharamonean mendi bizikleta ibilaldia

TTIPI-TTAPA

Zuzendaritza Batzorde berria aukeratzeko ez ohiko batzarra eginen dute Gure Txokoako bazkideek irailaren 27an. 20:00etan egin dute hitzordua lamotenean.

Hautagaiak egunean bertan aurkeztuko dira eta aurkezpenaren ondotik bozketa egingen da. Norbaitek Zuzendaritza Batzordeko partaide izan nahi eta talderik ez badu, lamoteneatik pasa daiteke ortzegunetan 19:30etik 21:00etara. Hala, egoeira berdinean dauden bertze pertsona batzuekin harremanetan jarriko ditu oraingo zuzendaritzak.

Biharamonean, Berako mendi bizikleta ibilaldiaren 22. edizioa egingen da. Orain arteko ibilbide bera egingen dute, baina alderantziz. Haurren ibilbidea ere ezberdina izanen da.

Hitzaldi zikloa

Julio Caro Barojaren mendeurrenako ospa-

kizunen baitan, bi hitzaldi antolatu dituzte. Irailaren 19an *Julio Caro Baroja: gizona, zientifikoa, euskalduna* solasaldia eskainiko du Jose Antonio Azpiazuak 19:30ean Beralandetan. Irailaren 26an, toki eta ordu berean, *La aporación de Julio Caro Baroja a la etnografía vasca* hitzaldia emanen du Aranzadi Zientzia Elkarteko Fermin Leizaolak.

Beilatokia

Irail hasieran izandako gorabeheren ondortik, hasiak dira Iturlandetako beilatokiko lanak. Bizilagunak kexu daude, «udalak ez digulako jakinarazi lanak noiz hasi eta bukatuko diren» eta Irache enpresarekin, bertze lokal bat lortuz gero, trukea egi-teaz ere solastu omen zuten. «Baina 12 urtez egin ez dena ezin da 4 egunez lortu», diote. Bilen bitartean lokalaren barnean lanean eta bizilagunak mobilizazioekin segitzen dute.

Bidazi

Bidazi elkarteak bilerak antolatu ditu bazkideei eta interesatuak daudenei informazioa



UTZITAKO ARGAZKIAK

Giro ederra Agerrako bestetan

Kirola eta besta uztartuz, ekitaldiz betetako bestak ospatu zituzten Agerrako auzotarrek abuztuko azken asteburuan. Ekitaldien artean, lasterketa egin zen, XXXIII. Luis M^a Apeztegiaren oroigarria. Fernando Etxegarai izan zen garaile kategoria absolutuan eta emakumezkoetan Leire Fernandez.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Organo, txistu eta gaita kontzertua Caro Barojaren omenez

Hainbat ekitaldi egiten ari dira Julio Caro Barojaren mendeurrenaren harira eta horien barne, irailaren 5ean organo, gaita eta txistu kontzertua eskaini zuten San Esteban elizan. Organoan Josu Goia aritu zen, txistuarekin Mugarik gabeko txuntxuneroak eta eurekin batera Sarako gaiteroak.

emateko. Irailaren 26an, 19:00etan Beralandetan gelditu dira eta irai-

laren 30ean, 19:00etan Arantzako Ekaitzan. Bortzirietan, Xaretan eta

Txingudin bilera gehiago ere izanen dira asteotan.



Muebles de cocina
Meubles de cuisine
Sukaldeko altzariak



Karlos Pombar Sainz

C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 884 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu



BAR
Botxo
OSTATUA

Zalain • BERA • 948 630 052



JAIONE-GOXOTEGIA

948 630 786
Altzate, 21 • BERA

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 20AN

Ez da aspertzeko aukerarik izanen Haurraren Egunean

Eskola eta ikastolako Guraso Elkarteek antolatua

Aitor AROTZENA

Irain eskolako eta Tantarumairu ikastolako guraso elkarteek egitarau zabala prestatu dute larunbatean ospatuko den Haurraren Egunerako. 11:00etan plazan (frontoian euria eginen balu) herri kirolak izanen dira. Sariak ere banatuko dira eta izen emateko epea irailaren 17an bukatuko da. Arratsalde, 4etatik aitzine-rra Harriondoan ekitaldi ezberdinak izanen dira: mahai-jokoak, 16:00etan Doplay (ttikiak), 17:00etan berendua, 17:30etan Doplay (haundiak) eta Xaldun Kortin eta 19:30ean dantza saioa Barbarorekin.

San Fermin elkartearen Errioxa aldera

Errioxa aldera bidaia antolatu du San Fermin erretiratuen elkarteak

urriaren 10erako. Goizeko 7etan abiatuko dira plazatik eta Bieran Pacharan La Navarra eta Embutidos Bordon enpresak bisitatuko dituzte. Handik Eltziego bisitatu eta Bastidako Jatorrena jatetxean bazkalduko dute. Bazkalondan Guardia bisitatuko dute, herrira itzuli aitzinetik.

Bi autobus izanen dira eta txartelak irailaren 17tik urriaren era hartu daitezke jubilatuen egoitzan, 30 euro ordainduz. Tokia izanez gero, bazkide ez direnek ere txartelak hartzeko aukera izanen dute urriaren 4, 5 eta 6an, 33 euro ordainduz.

Euskaltegiko matrikulazioa

IKA euskaltegietan izen emateko epea zabalik dago irailaren 30era bitarte. Maila guztiak eta EGA ateratzeko ikastaroak izanen dira eta On line ikasteko aukera ere eskainiko dute. Deskontu bereziak izanen dira langabeentzat, ikasleentzat eta diru sarrera urriko familientzat.



UTZITAKO ARGAZKIA

Jubiloteka zerbitzua martxan paratu dute herrian ere

Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eta Berako eta Lesakako Udalen ekimenez, aurten ere jubiloteka zerbitzua paratu dute martxan. Orain arte Beran bakarrik eskaini izan da zerbitzua, baina aurten Lesakara ere zabaldu dute. Hala, Beran, astelehen, asteazken eta ortziraletan bilduko dira eta Lesakan astearte eta ortzegunero, bi herrietan 10:00etatik 13:00etara. Beran hogeitaz lagunek eman dute izena eta Lesakan, berriz, oraingoz hamar lagun dira. Mankomunitateak adierazi dutenez, erabiltzaileak kontent daude zerbitzuarekin eta ekimenaren bultzatzaileak ere bai, jasotako erantzunarekin.

Harriondoan ikastaro berriak

Antzerki tailerra eta kantu teknika ikastaroak eskaintzekotan dira Kultur Etxean. Antzerkia Ramon Albisturrek emanen du asteazken eta larunbat batzutan abendura arte (segitzeko aukerarekin) eta kantu teknikakoa Isabel Lacarrek ortzegunetan.

Memoria tailerra

Ramoni Ordokiren eskutik memoria tailerra eskainiko da jubilatuen egoitzan urriaren 15etik abenduaren 17ra, asteazkenero 16:00etatik 17:30era. Izen ematea doan egin daiteke urriaren 13ra arte.



UTZITAKO ARGAZKIA

Eskola laguntza eskaini dute udan

Aurten ere, Elkarriaren eta Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eskola laguntza eskaini diete hainbat neska-mutikori. Zerbitzua abuztu osoan eman dute eta Ainhoa Azkarraga boluntarioak eman ditu eskolak Lesakan. Gosari batekin eman zuten ikastaroa bukatutzat. Antolatzaileek Lesakako Acorn Languages hizkuntza akademiari ere eskerrak eman nahi izan dizkiete, instalazioak erabiltzen uzteagatik.

MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450
Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
Tlf: 948 625 474

ERANDONEA, S.L.
BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

ETXALAR

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 21EAN

Sara eta Etxalar arteko harremanak berretsiko dira igandean

Egitarau zabala antolatua dago egun guztirako

Irune eta Itsaso

Usategietako tradizioaren besta antolatua dute irailaren 21erako Lizarietan. Egitarau zabala prestatu dute egun osorako:

- 10:00etatik 13:00etara artisauen lanen erakusketa eta salmenta izanen da. Hamaiketako taloekin.
- 10:30etik 11:30era botaluze pilota partida.
- 11:30ean 2011ko irailaren 4ko Sara eta Etxalar arteko hitzarmenaren sinadura berretsiko dute Sara eta Etxalarlarko alkateek.
- 11:45ean Usategietako makila (karote) botatzeko munduko txapelketa. Ondotik nahi duenak paleta botatzeko aukera izanen du.

- 13:00etan Sarako Zazpiak Bat eta Etxalarlarko Andra Mari dantza taldeetako dantzarien emanaldia.
- 14:00etan bazkaria Lizarietako zelaian: aratxe haragia. Sarako Saranga gaitariak girotuko dute eta kantu tradizionalak ere izanen dira. Ondotik, sokatira proba irekiak. Etxalarren bazkarirako txartelak Elutsa eta Herriko Ostatuan egonen dira salgai irailaren 16a arte.

Esnekien garrantziaz solasaldia

Lacturaleko ordezkari baten eskutik, *Esnekien garrantzia gure osasunean* hitzaldia izanen da Kultur Etxean irailaren 19an arratsaldeko 6etan. Solasaldia akabatzean bertarutako guztientzat oparitxo bat izanen da.



ARGAZKIA ETA TESTUA: IBON ERRAZU

Elizagoien ahizpak Euskal Herriko txapelkun laugarrenez

Euskal Herriko gazte mailako trikitilari txapelketa jokatu zen abuztuaren 15ean Zeanurin (Bizkaia) eta laugarren urtez segidan, Itsaso eta Irune Elizagoien ahizpak suertatu ziren txapelkun. 22 urtez goiti txapelketarik jokatzen ez denez, hau izan da azken txapelketa beraientzat. Hogeita zazpina txapel eskuratu dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIA

Landagain eskolan ikasturte hasiera

Irailaren 5ean hasi zuten ikasturtea Landagain eskolan. Ikasturte berrian 11 ikasle berri hasi dira: 9, 3 urteko gelan, 1, 4 urteko gelan eta berte bat 5 urteko gelan. Guztira 78 ikasle egonen dira 7 geletan banatuta eta hauekin batera 12 irakasle. Ikasturte berria parke berriarekin hasi dute; Guraso elkarteak eta udalak kudeatutako parkea. Beraz, eskolatik eskerrak ematen dizkiete bi erakundeei. Kurtsoa hasteko, LOMCE EZ lemapean elkarteratzea egin zuten irakasleek 8:55ean eskolako atarian.

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalainjateetxea.com

okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
jose luis & coro
Tfno/Fax: 948 630 018
Kanttonberri 12 • BERA

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak

kattagorria
lentzeria mertzzeria
Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

IRU BIDE
Erretegia · Asador

Burrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 20 ETA 21EAN

Besten aitzineko astebururako ere hainbat jarduera antolatu dituzte

Artzain zakur
lehiaketa
Meakandi
gainean egingen
da aurten

TTIPI-TTAPA

Larunbatean, irailak 20, marmitako txapelketa egingen da eta ondotik, prestatutakoa doan dastatzeko aukera eskainiko zaio frontoira hurbildu den jendeari. Arratsaldean plater tiroketa izanen da Ziobin. 19:00etan dantzariak euren emanaldia eskainiko dute.

Igandean haurren herri kirolak izanen dira goizeko 11etan. Eguerdian, XI. Gazta lehiaketa, ardi-ilea mozketaren erakustaldia, Nafarroako ardo dastaketa, eta

Artzaia: Nafarren sena izeneko pasaporteekin zozketa egingen da. 14:00etan jubilatuek La Villan bazkaria izanen dute.

ARTZAIN-ZAKUR LEHIAKETA

Arratsaldean XXXIV. Artzain-zakur lehiaketa izanen da, aurten leku berri batean ospatuko dena: Meakandi gainean. 18:30ean kankailuak eta buruhandiak, Lesakako trikitixa taldearekin batera ibiliko dira, eta gero, gazta eta opil dastaketa ere beraien musikarekin alaituko dute giroa.

ARTXIBOKO ARGAZKIA
34. edizioa beteko du artzain zakur lehiaketak.



UTZITAKO ARGAZKIA

88 txirrindularik parte hartu zuten Mendi Bizikleta Ibilaldian

Hogeita laugarren aldiz Biltokik antolatutako Igantziko Mendi Bizikleta Ibilaldian 88 partehartzaile izan ziren irailaren 7an, 63 heldu eta 25 haur. Helduek bi ibilbide izan zituzten aukeran: luzea, 35 kilometrokoa eta motza, 26 kilometrokoa. Herritik abiatuta Iñarburura joan ziren, handik Frainera igotzeko. Trenbidera jaitsi ondotik, Kaxoten harria dagoen tokiraino igo ziren. Gero Errotara jautsi eta handik abudo ibilbide laburra aukeratu zutenek herrirako bidea hartu zuten. Luzea nahiago zutenek, berriz Errotatik Apittura igo eta handik herrira jautsi ziren. Helmugan bizikleta garbitzeko eta dutxatzeko aukera izan zuten, baita parte hartzaileentzako luntxa eta zozketak ere.



José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barrukoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

SMAZIZIOR
edariak
T/F. 948 631 557
Helbidea. Ziobi, 3 ALKAIAGA
eposta: maziziorsenper@gmail.com

EDARIEN
eta
JANARIEN
SALMENTA
eta
BANAKETA

sarobe
gozotegia okindegia
pº de eztegarra 25 bajo
31780 bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

BORTZIRI
UNSION ANAIK
Sukalderako altzariak

Bereau etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

ARANTZA

HEZKUNTZA → IKASTURTE BERRIA

64 ikaslerekin ikasturtea abiatu dute eskolan

Pelle Ttiki haur eskolan zortzi haur hasi dira

Nerea ALTZURI

2014-2015 ikasturtea irailaren 5ean hasi zuten eskolan, guzira, 64 ikaslerekin eta 42 familiarekin. Ikasturte honetan, hamaika ikasle berri daude: hiru urteko bederatzi ikasle, bortz urteko bat eta bertze bat laugarren mailan.

Hiru urteko taldearen tutorea Idoia Iturria da eta hilabete honetan talde hau egokitzen ga-raian dago. Haur Hezkuntzarekin jarraituz, lau eta bortz urtekoak daude seina ikaslerekin. Miren Armendariz irakaslea dute eta Juana Larralde laguntzailea da.

Lehen Hezkuntzan, lehenengo zikloan, bederatzi ikasle daude Isabel Danboriena irakaslearekin; bigarren zikloan, Gontzal Errandonea tutorea dela hamahiru ikasle daude; hirugarren zikloan hamabi gaztetxo Noemi de Mateo irakas-

learekin; eta azkenik, DBH lehen eta bigarren mailetan bederatzi ikasle daude Andrea Villegas irakaslearekin.

Irakasle espezialistek dagokienez, ingeleserako Oihana Goikoetxea eta Aitor Elexpuru daude, musikan Ainhoa Azkarraga; soinketako irakaslea Joserra Lopez; DBHn letren ikasgaiak emanen dituen Maia-len Lazkano; logopeda Mirentxu Jimenez; orientatzailea Lourdes Labandibar eta PT-a Agustín Burlada.

Zerbait adierazgarria aipatzekotan, LHko 1go, 3. eta 5. mailetan LOMCE legea ezarriko dela da. Beraz, maila hauen-tzat aurtengoa egokitzen urtea izanen da.

Jantoki zerbitzua berri, urrian hasiko da.

GURASO ELKARTEA

Eskolako Guraso Elkarte berri da. Guzira zazpi ordezkari izaten dira eta bakoitzak bi urteko ardura izaten du. Amaia Telletxea, Rosa Maiz eta Idoia Etxeberriak bi urte egin dituzte


eta orain, horien ordeiz, Beatriz Taberna, Anika Maeztu eta Koldobike Gorostiza aukeratuak izan dira. Azken hauek iaztik dauden Mari Karmen Mitxelena, Ana Larretxea, Maitere Pagola eta Gema Lukanbiorekin taldea osatu dute.

HAUR ESKOLA

Pelle Ttiki haur eskolan ere joan den astean ikasturtea abiatu zuten. Zortzi ttiki daude bertan: Naroa, Aiala, Iker, Ioritz, Intza, Amets, Eneit eta Garazi. Goizero, Koldobike Gorostiza hezitzailearekin izaten dira.

Amaia Apezetxea mendiak orrazten

Amaia Apezetxea Telletxea Sunbillan bizi den arantzarra da. Lanbidez ile-apaintzailea da eta bere lanak nola amatxo eta etxeko lanek uzten dioten denbora pixarra kirolari eskaintzen dio. Gustukuena bizikletan ibiltzea badu ere, irailaren 7an Sunbillan izaniko maratoi erdian mendian lasterka ere estreina-



UTZITAKO ARGAZKIA

Amaia, Illurdiko kaxkotik ziztu bizian jausten.

tu zen. Ekainetik astean behin edo bitan eta bazkalondoan Sunbillatik Doneztebera eginiko lasterkaldiekin entrenatu da. Hasiera batean sei kilometrokoa egiteko asmoa bazuen ere, ingurukoek animatuta, hogeita bat kilometrokoa egitea erabaki zuen. Bere helburua ibilaldia akautzea bazen ere, garbi zuen, ezinean ibiliz gero, herrira jautsiko zela. Ba, lortu du nahia: azken bi kilometroak gogorak egin bazitzaizkion ere, helmuga ikus-tan, «sekulako satisfazioa» hartu zuela adierazi zuen Xorroxin Irratian

eginiko elkarrizketan. 3 ordu eta 45 minutuz egin zuen ibilbidea. Gogorra izan bazen ere, merezi izan duela aipatu digu. Familia eta ingurukoek animoak eta egun horretan mendi gainetan zeuden boluntarioen babesa azpimarratu ditu, indarra eman zitelako.

Helburuetako bat emakumeak kirola egitea bulkatzea izan da eta Amaiak erran bezala, «gure buruari denbora gehiago eskaintzeko aitzakia bat izan da, batez ere kirol munduan. Hargitza polita izan da». Zorionak eta segi gozatzen!



“TELLETXEA”
 Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatzeko sistema automatikoak -
- Kimaketak -


John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
 LESAKA • T. 619 418 683 • johtelletxea@hotmail.com
www.telletxealorazaintza.com


aterpe
 albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179
 ARANTZA
www.arantza.net


F. LANCHAS
 Akutxiladorea eta berrizatzalea
 Parket eta parket flotatzalea
 jartzea
 Mota guztietako zolak
 Tel: 948 630 735 M: 607 406 781


IMANOL ITURRIA
 ZURGINA
 Enpresa eta partikular
 T. 661 577 137
 E-posta: imaiturria@hotmail.com
 Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

SUNBILLA

GIZARTEA → IRAKASKUNTZA

89 ikaslek hasi dute ikasturtea

Horietatik bederatzi 3 urteko ikasle berriak dira eta zortzi Doneztebera joan dira

Maidar PETRIRENA

2014-2015 ikasturtea irailaren 5ean hasi zuten eskolako haurrek. Horrekin batera jangelazerbitzua ere martxan jarri zen. Guztira aurten 89 ikasle izanen dira bi eskoletan banatuak. Beheitiko eskolan Haur Hezkuntzako 37 ikasle dira, 3 taldetan banatuak. 3 urteko 9 ikasle berri hasi dira. 4 urteko gela, 11 ikasle eta 5 urtekoan, berri, 17. Beheitiko eskolako goiko solairuan, 4 eta 5 urtekoentzat bi gela berri egin dituzte.

Goitiko eskolan, berri Lehen Hezkuntzakoak daude: 1. mailan 8 ikasle; bigarren, 13; hirugarren-laugarren, 14; bosgarren 12 eta azkenik seigarren 5. Aurten Mendaur DBHira 8 ikasle joanen dira.

Dantza jaialdia irailaren 26an

Seigarren urtez ospatuko da irailaren 26an

arratsaldeko 8etan Dantza Jaialdia. Bertan herriko haur, koxkor eta helduek parte hartuko dute, hainbat dantza ezberdin dantzatzuz: Txulalai, Zapatain, Neskatxak, Jokua, Kontradantzak, Borobila, Bailaos, Gorulari, Sorgin dantza, Matelota, Arinlatin eta Ziego. Helduek, berri, Gipuzkoako Fandangoa eta Arin-arin Sunbilla, Larraindantza eta Xemeingo Ezpata-dantza. Animatu, urtero bezala ikuskizun ederra eskainiko baitute.

Berri honekin lotuta, aipatu herriko dantzariak hainbat herrietako bestetan parte hartu dutela. Zugarramurdi, Urdazubi, Arraioz eta Elbeten aritu dira.

Ulibeltzak elkartearen eskertza

Nahiz eta bestak atzean utziak ditugun, Ulibeltzak Elkartek ondoongo erakunde eta enpresa guztiei bere eskerrak eman nahi dizkio herriko bestetarako eskaintako laguntzaren gatik: Trans-amalur garraioak, Marisol Janaridenda, Maribel Janaridenda, M^a Jesus Hategia, Iturburu Ostatu, Ariztigain Kanpina, Bus-titz Ostatu, Amaia Ilea-



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Aurten ere dantza ikuskizun polita eskainiko dute.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

130 neska-mutikok parte hartu zuten 800 metroko proban.

paindegia, Espelosin Eraikuntzak, Javier Ibarra Eraikuntzak, Luis Ibarra, Iñaki Mikelarena, Gazmendi Eraikuntzak, Sasoi Eraikuntzak, Jon Agesta, Iruri Motor, Lizun Gaztandegia, Sunbillako Udala, Casa Arrutenea, Construcciones Mariezcurrena, Mendaur Pentsuak, Cosas de Casa, Electrodomesticos Miguelena, Caixabank, Caja Rural de Navarra, Ruiz okindegia, Ostiz, Renault Santesteban, Apezteguia Berria, Pienso Diva, Magnesitas Navarra, Goieko, Jaurena eta Haritzpe okindegia.

800 Dukado

Bukatzeko nahiz eta kirol orrialdetan luzeago aipatuko den, herriko berrietan ere tarte tiki bat eskaintzea egokia iduritu zaigu. Irailaren 7an Sunbillan bererik egun ederra izan genuen. Munduko lehen emakume mendi maratoia ospatu zen, 800 Dukado izeneko. Bertan hainbat proba ezberdin egiteko aukera bazegoen. Horietan hainbat sunbilla emakume parte hartu zuten. Atalxo honetan 130 haur, gaztetxoek parte hartzea azpimarratu na-

hi genuke. Horretan laguntzaile moduan, amak, izebak, amatek, lasterka, silletearekin, de-netik izan zen. Honekin geroa badagoela adierazi ziguten gure haur nola gaztetxoek. Sari-en banaketan gainera 800Dukadoen domina eskuratu zuten guztiek. Honez gain Udalak eskerrak eman dizkie kirol besta paregabe hau Sunbillan ospatzeko lagundu duten guztiei. Zeinen egun paregabea, elkartasunez beteriko eguna, hitzik gabeko eguna. Zorionak guztioi. Hurrengo urtean berri.



oninart
jantzi boutiquea
Plaza zaharra, 5 · 31770 LESAKA
T. 948 637167
oninart@oninart.com · www.oninart.com



EKONOMIA ETA GARAPENA → NAFARROAKO MENDIALDEARI BULTZADA

Lanin-G lan metodoa baliatuta etorkizuna eraikitzeko lanean

Cederna-Garalur garapen elkarteak bultzatu duen lan metodoaren bidez eskualdean lanpostuak eta ekonomia sustatzea da helburua

Entitate publiko eta pribatuek elkar-lanean, Nafarroako Mendialdearen azterketa bat egin, premiak identifikatu eta etorkizuneko lan ildoak zehaztu dituzte. Baztan-Bidasoa eta

Mendialdeko lan taldeetan jasotako datuek agerian utzi dute giza eta natur baliabideen ustiapen egokia egin eta lurralde kohesioa indartzeko premia dagoela.

E. IRAOLA

Nafarroako Mendialdeari bultzada emateko asmoz, elkarlanean eta parte-hartzean oinarritzen den lan metodo berria bultzatu du Cederna-Garalur Nafarroako Mendialdeko garapen elkarteak. **Lanin-G** izena eman diote, lan eginez lortuko delako landa eremura berrikuntza, sormena eta etorkizuneko lanpostuak erakartzea.

Eskualdeko eragileek ere parte hartu dute bertan, Baztan-Bidasoa eta Mendialdean osatutako lantaldeen bidez. Gobernantza parte-hartzailea hartu dute oinarri, lantalde irekiak osatu eta elkarlanean aritu dira.

Arlo pribatua eta publikoa; norbanakoak, elkarteak, enpresak, mankomunitateak... hartu emanean jarri dituzte. Batzuen eta bertzeen ikuspegiak jasota errealitatea ahalik eta hobekien ezagutzea baita asmoa.

Lanin-G lan metodoaren lau faseak osatu ondotik, zonalde bakoitzeko lehentasunak jasota daude. Bakoitzak bere eskualdeko premia zehatzak dituen arren, denek bat egin dute aipatzean, eskura ditugun giza-baliabideei, baliabide materialei eta naturak eskaintzen dizkigun altxorrei

LAN METODOA: LAU FASETAN

- Eremu estrategikoak zehaztu eta esparru desberdinetako ordezkariak bilatu: **Lan taldeak osatu.**
- Iritziak bildu: **Eskualdeko diagnosia egiteko.**
- Lan ildo eta estrategiak **proposatu.**
- Akzio zehatzak planteatu **lehentasunetan oinarrituta**

duten balioa ematen ikasi behar dugula.

Gainera, Nafarroako Mendialde osoan Natur Guneetako turismoa eta mikologia garatu nahi ditzutenez, arlo horietarako mahai sektorial bana osatu dute eta lanean dihardute dagoneko, gaiaren inguruko bilerak eginaz.



UTZITAKO ARGAZIAK

Eskualdeko entitate publiko eta pribatuek, Cederna-Garalurreko garapen agenteekin batera egin dute lan.

SEGIDA DUEN LANGINTZA

Nafarroako Gobernuak eta Europako Batasunak finantzatu dute egitasmoa LGD Nafarroako Mendialdea 2007-2013 programaren bitartez (LEADER ardatza) eta 48.000 euroko aurrekontua du. 2013an hasi zi-

ren lanean eta urte amaierarako 16 bilera eginak zituzten, 187 parte-hartzaileekin. Lan metodoaren azken fasean daude, baina aipatu ditzutenez ez du amaierarik «helburua lan dinamika parte-hartzailearekin segitzea baita».



Nahikari URIARTE | LEITZARAN-LARRAUN-ULTZAMAKO GARAPEN AGENTEA

«Lokalistak izateari utzi eta eskualde mailako proiektuak landuta indar sozial eta politiko handiagoa lortu liteke»

Mendialdea izenaren azpian biltzen dira 55 herri, 11 udaletan bilduta, tartean Arano, Goizueta, Areso eta Leitza. 2013ko urrian hasi ziren Lanin-G egitasmoan parte hartzen eta Nahikari Uriartek azaldu digunez, lurralde kohesioa indartzeko premia utzi du agerian «oraindik mentalitate lokalista dugu, eskualdekoa izan beharrean, hori da gure ahulgune nagusia. Hori lantzeko ekintza desberdin askotaz hitz egin genuen: Mankomunitate eta elkarte desberdinen elkarlana bultzatzea, Mendialdea Mankomunitatea adibidez, herri gehiagoz osatzea eta konpetentziak gehitzea; garraio publikoa indartzea; komunikabide amankomunak lortzea eta plangintza urbanistikoko bateratuak prestatzea».

Mendialdeak duen indargune nagusia «nolabaiteko oreka sozioekonomikoa duela da». Izan ere, «Mendialdean hiru sektoreak presentzia dute, abeltzainak, ge-

hien bat esnekiak landuz, industria indartsua ere badago eta zerbitzuak ere badu bere tartea, turismoak adibidez azken markadan gorakada handia izan du».

Lanin-G metodoak zonaldean interes gehien pizten duten arloak zeintzuk diren jakiteko ere balio izan du «argi geratu zen eskualdeko garapena, enpresa eta ekintzailak eta turismoa direla interes gehien pizten duten arloak».

Prozesuari segida emateko lan ildoak ere aukeratu dituzte eta ekintza bakoitzerako helburu konkretuak definitu. Udazkenean, ekintza bakoitzeko lan talde bat osatzeko asmoa dute. Bertan arlo publikoaren presentzia bermatua izanen da baina bestelako partehartzaileak ere ezinbestekoak direnez, gonbita luzatu die «prozesuan parte hartu nahi duen oro ongi etorria izanen da». Bilerak hiru hilabetetik behin egitea ere



LEHENTASUNAK MENDIALDEAN

• Lurralde kohesioa lantzea:

Mentalitate lokalista dute oraindik, eskualdekoa izan beharrean, elkarlana bultzatzeko formulak bilatu behar dira.

• Energia eta enplegurako prestakuntza edo formakuntza eskaintzea, aukera berriak eskura izateko.

adostu zuten «lan taldean parte hartzeko konpromisoa hartu ezin duena bilera orokorretara etorri daiteke prozesuaren nondik norakoa ikusteko eta aportazioak egiteko».

Izaskun ABRIL eta Arantxa ARREGI | BAZTAN ETA BIDASOAKO GARAPEN AGENTEAK

«Lehen sektorea indartu eta giza eta natur baliabideen ustiapen egokia egitea dira etorkizunerako gakoak»

Natur ingurune aberatsa dute Baztan, Bidasoa eta Malerreka eta bertako ekonomia sustatzekotan, lurralde lotuta eman behar dira urratsak. Horixe izan da Baztan, Malerreka eta Bortzirietan Lanin-G egitasmoak agerian utzi duen errealitatea. Eskualdean prozesua egokitu eta sektoreka lan egitea adostu zuten. Hala, 2013ko udazkenaz geroztik lehenengo sektoreko eragileak izan dira Lanin-G lan metodoan murgildu direnak. Izaskun Abril eta Arantxa Arregi, Cederna-Garalurreko garapen agenteek azaldu digute lehen sektoreak iraun dezan «produktuak merkaturatzekoan balio erantsi handiagoa lortu behar dela». Horretarako beharrezkoa da parte hartzaileen ustez «kontsumitzaileek bertako produktuak erostea eta bitartekariak sahistea».

Sentsibilizazio lan bat egitea ere premiazkotzat jo dute «nekazaritzaren eta mendiarren ustiaketaren onurak agerian utzi behar

dira. Gizarteak jabetu behar du produktuak eskuratzeaz gain, ekoizleen lan baldintza duinak bermatu, ekonomia sustatu eta paisaia mantentzea ere lortzen dela».

Bide horretan, tokiko erakundeek paper garrantzitsua jokatzen dutela azaldu digute «baldintza egokiak eman behar dira lehen sektorea indartu eta etorkizunean eskualdeko garapenean dagokion pisua mantentzeko. Tokiko erakundeek lagundu behar dute beharrezko ekipamenduak mantenduz edota bultzatuz eta, aldi berean, eskualde osorako baliagarria izan daiteken proiekturen bat gauzatuz». Proposamen artean, «bertako produktuen kontsumoa sustatzeko, eskualde mailako marka bat sortzea» aipatu zuten.

Eskualdeko indargune nagusia ere agerian geratu da «eragile aktiboak ditugu arlo publiko eta pribatuan. Elkarrekin lan egiteko beharra ikusten dute eta ados daude



LEHENTASUNAK BAZTAN-BIDASOAN

• Bertan ekoiztu eta bertan kontsumitzea bultzatzea, sentsibilizazio lan bat premiazkoa da.

• Lehen sektorearekin zerikusia duen formakuntza eskaintza zabaltzea.

• Instalazio eta proiektu amankomunak bultzatzea.

Cederna-Garalur elkarteak prozesu hau bideratu ahal duela elkarlana bultzatuz».

DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 19TIK 21ERA

Besta ttikiak ekitaldiz beteak datoz asteburuan

Herriak erositako karpa estreinatuko da egunotan

Marga ERDOZAIN

Errebestak edo besta txikiak irailaren 19tik 21era ospatuko dira. Azkeneko urtetan beza-la Burrunba gazte taldea buru belarri aritu da besta antolatzen, hainbat guraso eta Doneztebarrak Merkatariekin elkarlanean arituta. Ortziralek arratsaldeko 8etan suzuria Santa Luzia plazan botako da eta ondotik pin-toak doan banatuko dira. Ordu berean haurrendako buruhandiak eta zezentxoak izanen dira. Ondotik, trikipotea eta baztan zopak dastatuko dira jatetxe eta elkartertan. Gaueko 12:30etik 5etara Azabache taldearen eskutik dantzaldia izanen da. Larunbat goizeko 11etan mustxapelketa elizatarian eginen da; 11:30ean gazteen arteko laxoa partida.

14:00etan herri bazkaria Santa Luzia plazan (heldu eta ttikiendako menuak eskainiko dira, Titi ostatuan izena eman behar da). Muxikoak dantzatzeko aukera izanen da. Oharkabe taldeak alaituko du bazkalondoa eta gauerditik aitzinera, Estu eta Larri eta Los Webotes taldeak entzuteko aukera izanen da.

Igande eguerdiko 12etan buruhandiak ibiliko dira eta arratsaldeko 4etan herri kirolak haur eta gazteendako antolatuko dira. Ondotik, txokolatada goxoa prestatuko du Doneztebarrak elkarteak.

Besta hauek herriak erositako karpa estreinatuko da. Egitura hau Santa Luzia Plazaren neurrirako egin da, modularra da eta udala, Burrunba, Doneztebarrak, Erreka eta Doneztebe Futbol Taldearen artean erosi dute. Otorduak, ferialak, erakusketak, kontzertuak... antolatzeko erabiliko da, eguraldiaren menpe egon gabe.



ARGAZKIA: TIBURTZIO ARRAZTOA

Doneztebeko bigarren laxoa txapelketa

32 lagunek parte hartu duten aurten bigarren aldiz egin den Doneztebeko Laxoa Torneoan. Emilio Zabala, Gorka Iribarren, Jokin Arraztoa eta Pio Gartzia nagusitu dira eta azpitxapelkunak Pascual Bertiz, Julen Larretxea, Mikel Mutuberria eta Aitor Bertiz izan dira. Guztira 32 lagunek parte hartu zuten, zortzi taldeetan banatuta eta pilota modalitate honek Donezteben etorkizuna baduela ikusi zen berriz ere.

Burrunbak junta berria

Burrunba Gazte taldeak udan junta berria estreinatu du. Momentuz, Josu Telletxea, Matxin Jaunsaras, Javier Gago eta Unai Urrozek osatuko dute elkartearen gidaritza taldea, baina kide gehiago erakartzeko asmotan daude, taldea zabaltzeko eta koadrila ezberdinetako kideen ekarpena bermatzeko. Hamarkada honetan izandako jardueraren il-dotik jarraitzeko asmoa du Burrunbak, kulturen arloan sakondu, kultur ekimen gehiago antolatuz. Beraz, indartsu,

gogotsu eta ilusioz beterik heldu dira gazteak, ea herriko gainerako taldeekin elkarlana indartzen den eta kimu berri hauek fruituak ematen dituzten.

Errekako emakume korrikalariak

Emakume Kirol Taldeak bigarren denboraldia abiatu du. 20-25 emakumez osatutako taldeak ortzegunero gaueko 8etatik 9etara entrenamendua izanen du. Iñigo Arregi, Jokin Apezetxea eta Alfredo Telletxea entrenatzaile lanetan ariko dira. Irailetik ekainera kirolaz goza-

tzeko aukera izanen dute Errekako kide hauek eta hainbat probetan parte hartzeko trebatuko dira: San Silvestre, Behobia, 800 Dukado, herriko lasterketa... Oraindik apuntatzeko aukera bada.

Euskaltegia

Irailaren 30a arte Marrekako IKA euskaltegiak matrikulatzeko epea zabaldu du. Maila guztiak eta EGA ikasteko aukera izanen da, era presentzialean edo on-line edo autoikaskuntzaren bitartez. Interesatuak 948 45 15 55 telefonora deitzen ahal dute.

AMEZTIA

HOSTALA BTT ZENTRUA OSTATUA JATETXEA

ASTEBURUKO MENUA

18€

HAURRENTZAKO MENUA

10€

eta gainera...

• ENTZALADAK

• PASTA FRESKOA

• SASOIKO BARAZKIAK

• PLATER KONBINATUAK

Ogitartekoak, sandwich-ak, hanburgesak...

T. 948 450 028 DONEZTEBE www.ameztia.com

APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 20AN

Joare soinuak baserrietara ailegatuko dira Joaldunen Egunean

Jexux Mari
Irazu eta Miren
Amuriza ariko
dira bertsotan

Arkaitz MINDEGIA

Behin irailean sartuta, ate joka izan ohi du-gu Joaldunen eguna. Larunbat honetan izanen da, irailaren 20an eta herriko xoko guziak joare soinuaz beteko dira eta horren aitzakian besta polita izanen da egun guzian.

Larunbat goizean zehar joaldunen eta trikitilariak Ameztiaren barrena hasiko dira baserri beraiekin soinuekin eguna ederki hasteko. Eguerdirako herrira jautsiko dira.

14:00etan aizkora apustua: Iker Vicente-

Mieltxo Mindegia. Aizkora apustua bukatzean Jexux Mari Irazu eta Miren Amuriza bertso-lariak saio ttiki bat egingen dute. 15:00etan Herri bazkaria (txartelak Herriko Ostatuan eta Ariztegi harategian).

Bazkal ondoren bertsolarien saioa eta Mikel Salaberriren eskutik musika izanen da.

800 Dukado lasterketa

Irailaren 7an herritik pasa zen 800 dukado lasterketa, Emakumeen nazioarteko lehen mendi maratokia. Iturenetik Lasaga zeharkatuz, Aurtiztik Mendaur kaxkoraino. Animoak ematera hainbat lagun bildu zen, baita Iturengo joaldunak ere. Emakume andana batek par-



ARGAZKIAK: IRUNE BAZTERRIKA

Bi sari lortu ditu Isidro Bazterrikak bere ardiekin

Uharte-Arakilen abuztuaren 31n egin zen Nafarroako Ardi latxaren 31. edizioan, Isidro Bazterrikak bi sari lortu zituen: bildotx burugorrien kategorian 1.saria eta ardi heldu burugorriko taldearekin azpitxapelduna izan zen.



Bi kiloko tomateak

Aurten ez da hagitz uza ona izan baratzeetan baina Ana Mari Aioroaren eta Ana bere alabaren baratzean ez dirudi hala izan denik, argazkian ageri den bi kiloko tomateak bildu baitute. Argazkian, Ana Mariren bilobak ageri dira, Janire eta Iraia.

te hartu zuten, horien artean maratoi erdian parte hartu zuten hiru: Ainhoa Elizalde eta Oihana Mindegia lortu zuten beraiekin erronka, lasterketa bukatzea, bertzalde Maika Ariztegi azkeneko momentuan lasterketa bertan behera utzi zuen.

Auzolana

Joan den larunbatean, irailaren 13an, auzolan abisua egin zuen Udalak, herri mahaian. Oraingo honetan auzolanean ibili zirenak herriko xoko eta bazterrak garbitzea zuten lana, bai Ituren, Lasaga eta Aurtitzen.

Zuzenketak

Aurreko TTAPI-TTAPAN deskuiduan akats bat egin genuen. Argazkian azpikaldean izenburu gisa, judo eta trikitixa ikastaroak zirela jarri genuen, baina kenpo kai eta trikitixa ikastaroak ziren. Barkatu eragozpenak.

TTAPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa

Inzakardi
Pinturak

- PINTURA LANAK OROKORREAN -

Eduardo Oyarzabal
m. 630 511 488

Inzakardi, 10
DONEZTEBE/SANTESTEBAN

Gure Haragia
Nuestra Carne

2
AFARI BIKOITZ
ZOKZETATUKO
DITUGU
urtean zehar

POSADA OITZ

Nagusia 1 OITZ
T. 948 451 951 - 948 450168
www.posadaoitz.com

URROZ

SAN MIGEL BESTAK → IRAILAREN 26TIK 30ERA

Tortilla eta postre lehiaketak egingen dira egun handian

Herri bazkarian Iker Zubeldia eta Jexux Mari Irazu bertsolariak ariko dira

TTIPI-TTAPA

San Migel bestei gogotsu ekinen diote aurtentzen ere urroztarrek eta horretarako egitarau zabalak prestatu dute:

ORTZIRALA, IRAILAK 26

- 17:00-20:00etara puzgarriak.
- 20:00etan altxaferoak eta ezkil jotzea.
- 21:30ean zopak Herriko Ostatuan.
- 00:00etan Dantzaldia OHARKABE taldearekin.

LARUNBATA, IRAILAK 27

- 10:00etan puzgarriak.
- 14:00etan herri bazkaria. Bertsolariak: Zu-

beldia eta Irazu.

- Arratsaldean dantzaldia SALABERI soinulariarekin. Sokatira desafioa gazteak zaharren aurka.
- 21:00etan zingar jateak plazan.
- 22:00-05:00etara dantzaldia OHARKABE taldearekin.

IGANDEA, IRAILAK 28

- 10:00etan puzgarriak.
- 11:00etan mus txapelketaren hasiera.
- 13:00etan aizkora apostua: Rekondo-Erasun, Nazabal-Saralegiren aurka.
- 17:00etan trikitilariak.
- 18:30ean Gorriti eta bere animaliak.
- 20:00-22:00etara dantzaldia AGERRALDE soinulariarekin.
- 22:00-23:30era gazte koadrilen afaria.
- 23:30-03:00etara dantzaldia AGERRALDE soinulariarekin.



ARGAZKIAK: JOSEBA URROTZ

Haurrendako jokuek eta aizkora apostuek ez dute hutsik egingen aurtengo egitarauan.

ASTELEHENA, IRAILAK 29 SAN MIGUEL EGUNA

- 10:00etan puzgarriak.
- 11:15ean haur jokak.
- 12:00etan Meza Nagusia. Ondoren luntxa Herriko Ostatuan.

- 17:00etan mus txapelketaren bukaera.
- 18:00etan pilota partidak.
- 18:30-23:00etara dantzaldia AGERRALDE soinulariarekin.
- 20:00etan tortilla eta

- postre lehiaketa.
- 23:00etan Gaixoa Ni.

ASTEARTEA, IRAILAK 30 HERRIA GARBITZEA

- 10:00etan herria garbitzera, eta ondotik... gosaltzera.

Jar ezazu zure erakundearen osasuna APMren esku!
Nafarroan 15 urteko esperientzia prebentzio-lanetan dugu gure alde!

- Lan-arriskuen prebentzioa
- Osasunaren zaintza
- Prestakuntza
- Errendimenduaren Kontsultoretza

Egoitza Nagusia: Iruña, Monasterio de Allos, 2
948 26 4915
apm@apmprevencion.com
www.apmprevencion.com

APM
Prebentzioa

Urrozko Udalak

besta zoriontsuak
opa dizkizue
urroztar eta bisitari
guztiei

ZUBIETA

GIZARTEA → URRIAREN 11TIK AITZINERA SALGAI

Herrian bizi diren neska-mutikoen argazkiekin egutegia egingen da

Urriaren 11ko Euskararen Egunean aurkeztuko dute

Fermin ETXEKOLONEA

Heldu den urterako egutegia egiteko asmoa dago eta Euskararen Egunean aurkeztuko dute, urriaren 11n. Herrian bizi diren neska-mutikoen argazkiak

agertuko dira. Berriz ere urrian irekitzeko asmoa du Gaztegunekak. Bilerak egiten ari dira programa zehazteko eta Euskararen Egunean, gazteendako ez ezik haurrentako tartetxo bat egiteko asmoa dute.

Ikasturte berria

Ikasturte berria hasi da eta herriko hiru neska-mutiko hasiak dira Doneztebeko eskolan: Janire Elizalde, Ilenia



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Herriko neska-mutikoak izanen dira egutegiko protagonista.

Bendoiro eta Antton Elizalde.

Herriko Ostatua

Julietta Itoizek Herriko Ostatua utzi zuen festetako azken egunaren ondotik eta udalak berriaz ere enkantera atera-

tzeko prozesua abiatu du. Eskaintzak aurkezteko epea bukatu da dagoeneko eta laister adieraziko du Udalak zeinek hartuko duen ardura.

Egur loteak

Santesteban Egurrak

enpresak atera ditu herriarren egur loteak. Jendeak eman zuen izena bere garaian, kamioi osoa edo kamioi erdia hartzeko aukerarekin eta gargero etxetik etxe banatuak izanen dira lote gehienak.

ELGORRIAGA

Flamenko gaua ospatu zen abuztuko azken larunbatean

Mattin LARRALDE

Abuztuko azken larunbatean Herriko Ostatak Flamenko gaua antolatu zuen, *La flauta angelical & guitarra leonida* bikotearekin. Flamenko fusioa izan zen bikote honek eskaini zuena, zeharkako txirula eta kitarrarekin. Ondoren DJ Tororo izan zen musika jartzen ordu ttikiak arte. Giro ederra izan zen, jende aunitz bildu baitzen.

800 dukado

Irailaren 7an 800 Dukadoko 21 kilometroko oinezko martxan herriko 6 neskak parte hartu zuten. Eurek ideki dute bidea eta ea hurrengorako neska gehiago animatzen diren. Gora zuek! Herriko 10 bolondresen ere parte hartu zuten antolaketa gantzen.




ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Oinezko martxan atera ziren herriko sei emakumeak.



**KALITATE MAXIMOA
PREZIORIK HOBERENEAN**



AN ENERGÉTICOS LESAKA
Alkaiaga Industrialdea • Banarta, 18
(N 43° 16' 50" - W 1° 41' 40")

**GASOLIO A
prezio
ezin hobeak**

ESKAINITZA BEREZIA!!
Irailaren eta urriaren 5 zentimo/litro deskontu zuzena bankuko txartelarekin ordaintzerakoan

ETA GARRAIOLARIENTZAT...
Kafea+pintxo edo ardoa+pintxo 250€ gasolio erosita
Eguneko menua 600 euro gasolio baino gehiago erosiz gero

Erosketa-tiketa aurkeztu behar da*

* Eskaintza baliagarria irailaren 15etik urriaren 31 arte. Promozioaz baliatzeko erosketa-tiketak aurkeztu behar dira. Kanpaina honetan parte hartzen duten jantietan zerrenda gasolindegian dagoen kartelean ageri da.

ERABILGARRI EGUNEO 24 ORDU

GIZARTEA

ARKUPEAK ELKARTEA → IKASTURTE BERRIA

Irailaren 19an bukatuko da ikastaroetan izen emateko epea

230 bazkide
izan ziren
Arantzazu eta
Loiolako
bidaian

Fernando ETXEBERRIA

Boletín berezian bildua ageri denez, ikastaro ezberdinetan izen emateko epea irailaren 19an bukatuko da. Parte-hartze handia espero da, ikastaro aukera zabala izateaz gain, interes handikoak direlako. Gainera, horietako batzuk (informatikoa, *Aktiba* zaitez eta

Irribarre batekin ernatzea) guztiz doan eskainiko dituzte. Hau idazterako orduan, irailaren 9an, 110 bazkidek emana zuten izena.

Arantzazu eta Loiolara bidaia

Azken urteetako ohi-turari eutsiz eta Arantzazuko Amabirjinaren bederatziruaren lehen egunarekin bat eginenez, Arantzazu eta Loiolara bidaia egin zuten Arkupeak elkarteak 230 bazkidek abuztuaren 31n. Aurten, gainera, igandearekin suertatu zenez, beste bisitari



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Arantzazuko Amabirjinaren bederatziruaren lehen eguneko mezan izan ziren Arkupeak elkarteak.

ugarirekin bat egin zuten Arkupeak elkarteak. Aitortza komunitarioarekin hasi zen eta hori jendearen gustokoa da, apezari pekatuak eta penak aitortu ordez, apezek eskuak

jartzen baitizkiete buruan aitortzaileei. Egur-diko meza seriotasun handikoa izan zen, 20 apez baino gehiagoketa ehunka sinesdunek hartu baitzuen parte. Ondotik, Azpeitiko Ki-

ruri jatetxeko bazkaria bikaina izan zen, baita Jose Angelekin egindako dantzaldia ere. Batzuk, San Inazioaren basilika bisitatzeko aprobetxatu zuten, jatetxetik gertu baitago.

KONPONKETAK
ere egiten ditugu

%20
DESKONTUA
SUKALDE
ALTZARIETAN

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

IMCALIFT ELEVACIÓN

Eskailerak igo eta jaitsi erosotasun osoarekin

Hogei urte baino gehiagoko esperientzia kalitaterik handieneko igotze-sistemak eta irisgarritasun-soluzioak fabrikatu eta instalatzen, neurrira eginak eta beharretara egokituak

Nafarroako enpresa honek gaur egun funtzionamenduan dauden 1.000 instalazio baino gehiago ditu Nafarroa osoan, horietako aunitz gure inguruan (**Bera, Lesaka, Elizondo, Arizkun, Dantxarinea, Etxalar, Elgorriaga, Lekaroz, Doneztebe, Sunbilla...**), etxebizitza partikularretan eta eraikin publikoetan.

Jendeak gehien eskatzen duen produktuen artean daude eskailerak igotzeko aulkiak, plataformak eta goragailuak (igogailu partikularrak), batez ere atarian eskailera-mailak baldin badituzte edota etxe barnean eskailerak. Halakoetan, mugikortasuna zaildu egiten zaie adinekoei batez ere, eta batek



baino gehiagok etxetik ateratzeari utzi egiten dio eskailerak jaisterakoan erortzeko beldurrez.



IMCALIFT ELEVACIÓN

Zure etxeko bizitza kalitatea hobetzen dugu

ESKAILERA IGOGAILUETAN ADITUAK

1000 instalaziotik gora Nafarroa osoan. 20 urteko eskarmentua



3 URTE BERMEA
KALITATE CORENA BERMATUA

HIRU URTE ARTERARTEKO FINANTZIAKETA

Eskaintza Handiak Eskaileretarako Aulki Igogailuetan

www.salvaescaleras-elevadores.com

ARRETA PERTSONALIZATUA:
948 235 974

AURREKONTUA
BISITA ETA AZTERKETA
KONPROMISORIK GABE

Mutilva Baja Industrialdea,
F kalea, 12. zbkia
MUTILVA - NAFARROA

ESKAILERAK IGOTZEKO AULKIA: ETXE OSOAN BARRENA SEGURU ETA ERRAX MUGITZEKO

Edozein eskailera klasetara egokitzen diren aulki goragailuak egiten ditu Imcalift-ek (baita eskailerarik estu eta zailenentzat ere) eta **abudo instalatzen dira** (egun 1eko muntatze-lana), **ez da obrarik egin behar** eta aulki-igogailu hauek instalatzeko ez da udaleko obra-baimenik behar.

Behin plegatuak daudenean toki gutti okupatzen dute eta **arras gogor, iraunkor eta seguruak dira**. Eskaileraren bi aldeetara instalatzen ahal dira, bai etxe barnean edo kanpoan. Erabiltzeko arras errazak dira eta argia joaten denean ere funtzionatzen segitzen dute bateriari esker.

AHOLKU EMATEA, BISITA ETA AURREKONTUA DOAN, KONPROMISORIK GABE

Imcalift-ek aholku-emate pertsonalizatua eskaintzen du. Teknikoek bisita egiten dute etxeetara eskailera ikusteko; azterketa bat egiten dute eta gero aurrekontua prestatu posible den preziorik hoberenarekin eta kasu bakoitzerako ikusten duten aukerarik hoberekin. Instalatzen dituzten

produktuek 3 urte arteko bermea izaten dute eta bezeroaren esku jartzen dute tekniko talde oso bat instalazio txukun eta profesionala egiteko, aulki-igogailuen mantentze-lana xuxen egitea segurtatzen dute eta matxura edo aberiarik gertatuko balitz, berehala moldatzeaz arduratzen dira.

NARBARTE

GIZARTEA → ABUZTUAREN 30EAN

Pistak garbitzen eta moldatzen aritu dira auzolanean

Baratzeak triste egon badira ere, izan da hiru kiloko tomateak bildu dituenik ere

Martin BERTIZ

Abuztuaren 30ean auzolana antolatu zen. Bertara 45 bat herritar hurbildu ziren eta hainbat lan egin zituzten, tarteko bide garbiketak baina lan nagusia mendian izan zen, pista moldaketetan eta garbiketetan.

Hiru kiloko tomateak

Aurten herriko baratzeak triste egon dira baina izan da tomate

ederrak eman dituenak. Pasa den urtean baratze berean 2,2 kiloko tomateak ateratu zuten eta aurten 3 kilokoak, baina izan dira kilo terdikoak eta kilokoak ere. Argazkian ikus dezakegu Gaizka 3 kiloko tomatearekin.

800 Dukado

Irailaren 7an izan zen lehen emakume maratoia eta herriatik pasatu zen. Herriko plantaziotik sartu ziren, Otaltzutik Albinera jaitsi eta handik Gorritiko auzoa gurutzatu eta Lakoizketa aldera joan ziren, bertan Legasako bidea hartzeko. Lasterketaren antolakuntzan herriko 20 boluntariok ere parte hartu zuten.



Ba al zenekien

Diana Iniestaren margolanak ikusgai daudela Bertizko Natur Parkean irailean eta urrian.



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Gaizka, hiru kiloko tomatearekin.



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Emakume korrikalariak, 800 Dukado lasterketan Narbarten barna.



**HORMIGOI ETA ZUREZKO EGITURA
DUTEN ETXEBIZITZEN PROIEKTU ETA
ZUZENDARITZA TEKNIKOAK**

Fernando Orset Mauleon arkitektura
Frain Auzoa, 27 IGANTZI 615 700 007

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

KULTURA → IKASTURTE BERRIA

Bertso eskoletan izen emateko aukera zabaldu du Bertsozale Elkartek



Lesakako bertso eskolako haur eta helduak, Bardoak finalean kantari.

Gutxienez lau ikasle beharko dira taldeak osatzeko eta hiruhileko bakoitzeko 20 euro kobratuko dira

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Bertsozale Elkartek bertso eskoletan izen emateko aukera zabaldu du. Gutxienez lau ikasle beharko dira taldea osatzeko eta hiruhileko bakoitzeko 20 euro kobratuko dira. Eguna eta ordua izena ematen dutenen artean adostuko dira.

Hurrei dagokienez, izen emateko nafarroa@bertsozale.com edo estiarozena@hotmail.com helbide elektronikoetara idatzi edo 618 963011 eta 948 143747 telefonoetara dei dezakete.

Helduak eta gazte txoak bertso eskolan izena emateko interesatuak badaude Bertsozale Elkartera deitu edo idaz dezakete (948143747 edo nafarroa@bertsozale.com).

Bertsolaritzan ikasi eta trebatzeaz gain, lagunartean ongi pasatzeko aukera eskainiko du bertso eskolak. Eskualdean, hainbat herritan badaude dagoe-neko taldeak eta gehiagotan ere sor daitezke.



Jarrai gaitzazu. Badabil.



ORAIN DA UNEA.

BIHURTU ERRENTAGARRI ZURE AURREZKIAK RURAL KUTXAREKIN

Zure aurrezkiarako errentagarritasun handiagoa bilatzen ari bazara, zatoz Rural Kutxara.
Gauza interesgarri bat kontatu behar dizugu.

Errentagarritasuna hobetzeko proposamen ugari daukagu zure aurrezkiak modu aktiboan kudeatzeko,
espero duzunari egokitzen zaizkionak. Trataera profesionala ematen diogu zure diruari.

Zatoz Nafarroako Rural Kutxara. Zain izango gaituzu.



www.cajaruraldenavarra.com

EZKURRA

GIZARTEA → ASTEBETE BAINO GEHIAGO

Zaborra bildu gabe utzi zutela eta bizilagunak haserre

Abuztuaren 25ean ezin izan zuten bildu eta astebete egon zen bildu gabe

Fernando ETXEBERRIA

Abuztuaren 25ean etorri zen zaborra biltzera kamioia herrira, baina ezin izan zituen eskola ondoan zeuden hondakinak bildu, eskolako teilatua berritzeko erabili behar zen materiala bertan pilatua zegoelako. Egun berean erretiratu zuten material hori eta bizilagunek Mankomunitatera deitu zuten, argazkian ageri denez zabor asko zegoelako eta usain txarra botatzen zuelako. Horregatik, lehenbailehen biltzera etortzea eskatu zuten, kontuan hartuz Barranka ostaturare metro gutxi batzuetara dagoela eta inguru horretan biltzen direla herritarrak eta uda partean kanpotik etorritako bisitari kopuru handia ere. Baina ezezko erantzuna jaso zuten eta hurrengo asteko astelehenera arte, irailaren 1a arte, bildu gabe gelditu

zen zaborra. Horregatik kexu ziren herritarrak.

Egur loteak

Bizilagunek lehenbailehen hartu eta negua prestatzen hasi dezaten egur loteak prestatzen hasiak dira. Oraingoz, horren arduraduten langileek bidea egoera kaxkarrean topatu dute euriteen ondorioz, eta inguru horretan aldapa handiak daudenez, zail egiten zaie ailegatzea. Horregatik, gorago beste bide bat irekitzeko asmoa



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Zabor pila galanta osatu zen, astebez zaborra bildu gabe egon ondoren. Herritarrak kexu ziren Mankomunitatera deitu eta arazoa ez zutelako konpondu.

dago, haraino egurra igo eta eremu lauago batera eraman ahal izateko. Eremu horretatik kamioian eramanen luke te etxeetara.

ARGAZKIA: F.O ETXEBERRIA
Zailtasunak zailtasun, egur loteak etxeetara eramateko lanetan hasiak dira.



Eskolako lanak bukatu dituzte

Irailaren 5ean bukatu zituen Betilan enpresak eskolako teilatua berritzeko eta aurreko aldea edo fatxada margotzeko lanak. Itxura ederra eman diote zaharberritutako eskolari.




ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA



4
LOTE
ZOKETATUKO
DITUGU
urtean zehar

ARKUPE
Gozotegia · Txokolategia
Elizondo-Irurita (Nafarroa) · Tfn. 948 45 23 93
info@arkupegozotegia.com · www.arkupegozotegia.com



KULTURA → X. EDIZIOA

Talo eguna irailaren 21ean ospatuko da

Kontsumo
taldea ere
bertan
aurkeztuko dute

JM BARRIOLA

Urte sasoi honetan Plazaola partzuergo turistikoa Udalarekin batera, Talo Eguna antolatzen du. Helburua turistei ingurua ezagutaraztea da eta bide batez gure gastronomian hain garrantzitsua izan zen taloa mantentzea. Aurten irailaren 21ean ospatuko da egitarau mardul batekin. 10:00etan hasiko da Talo azoka, bertan Sara-legitarrek eta Villabona-tarrek taloak prestatuko dituzte, jaki ezberdinekin osatuz. Artisauak ere izanen dute beraien lekua eta baita kirolak

ere: Leitzako neska-mutilak harri tiran ariko dira eta Kañamares anaien "zerratokia" erakustaldia egingen dute plazan. Horretaz gain animaliak, baserriko tresneriak, artoarekin zerikusi duten lanabesak, inguruko landaetxeen informazioa, talo pintxoak... izanen dira plazan. 4 eta 14 urte bitartekoentzat taloak egiteko tailerrak eta eskualdeko talo lehiaketa ere izanen da. Umeek gurdian ibiltzeko aukera ere izanen dute herrian barna.

Kontsumo
taldearen
aurkezpena

Talo egunaren baitan, Leitzako kontsumo taldearen aurkezpena egingen da. Artisau azokan postu bat jarriko dute



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Taloaren bueltan egun osoko pesta izanen da irailaren 21ean.

bertako barazkiekin eta taldearen inguruko informazioa ere emanen dute. Poliki forma hartzen ari den taldea da, jadanik bilera batzuekin dituzte eta garbi dute beste kontsumitzeko eredu bat martxan jarri

nahi dutela; ondarea errespetatuko duena, osasuntsua eta bide batez justua. Bertako nekazariak landutako produktuak baloratu eta komertzio justu eta jasangarriago bat sustatuz. Elidakura eta energia bu-

rujabetza lortzeko urratsak eman nahi dituzte, tokiko garapena eta tokiko produktuen ekoizpena bultzatu eta inguruarekin eta jendartearekiko errespetuan oinarritzen den kontsumo eredu bat bultzatuta.

IRAILAK 25, URRIAK 1 ETA 8AN

Energiari buruzko jardunaldiak antolatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Kontsumo taldeak bultzatuta, energiari buruzko jardunaldiak izanen dira irail bukaera eta urri hasieran. Irailaren 25ean Xabier Zubialde Sustrai eraikuntzak taldeko kideak energiaren burujabetasunaren inguruko hitzaldia eskainiko du. Urriaren 1ean berriz, Goiener kontsumitzaileen kooperatiba aurkeztuko dute. Azken aldian asko ari dira zabaltzen kon-


tsumitzaileen kooperatibak Euskal Herrian, energia jasangarria ekoiztu eta kontsumitzea bultzatuz. Azkenik urriaren 8an, etxeko fakturak nola irakurri eta nola kontratatu ikasteko tailerra izanen da. Guzti honekin energia aurreztu, kontsumo jasangarria lortu eta gaiaren inguruan dagoen ezjakintasuna gainditu nahi da. Hitzaldi eta tailerrak Atekabeltzen izanen dira iluntzeko 07:30ean.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Udala baserriak seinalizatzen ari da

Herrigunetik kanpo bost auzo daude Leitzan eta baserri tradizioaletaz gain etxe berriak ere eraiki dira eremu horietan, dena 110 bizitza daude. Askotan bide sarea nahiko nahasia suertatzen zaie kanpotik zerbitzuren bat ematera etortzen direnei: larrialdiren bat, banaketa zerbitzuak... Arazoak ekiditeko asmoz bideetan eta batez ere bidegurutzetan jarriko dira baserri eta etxeetako izenak.



ARGAZKIA: GIZARTE ZERBITZUAK

'Ur festa' gozamenez 2014a

Leitzan, Gozamenez programaren baitan ur festa ospatu zen irailaren 5ean, gauez. Festa hau Gizarte Zerbitzuek, Leitzako Kiroldegia eta Andraizko Emakume Zerbitzuak antolatzen dute duela zortzi urtez geroztik. Aurten oso sentazio politarekin gelditu dira. Parte hartze altua izan da, 12-16 urte bitarteko 50 gaztetxo joan ziren eta festaren helburua erabat bete zen beraien ustez. Drogak, aurreiritziak, itxurak, modak... alde batera utzi eta ederki pasa zuten. Festa hasi aurretik ongi-etorri pankarta margotu zuten haurrek eta giro bikaina sorrarazi zuten piszinako ur epelak, musikak eta antolatzaile eta gaztetxoek jolasteko eta ongi pasatzeko eraman zuten gogoak. Gizarte zerbitzuek eskerrak eman nahi dizkiete parte hartu zutenei eta jakinarazi dute hurrengo urtean berriz antolatzeko prest daudela.

GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 21EAN

Iskibiko euskal jaia ekitaldi berriekin dator

Eguerdian nesken herri kirol erakustaldia izanen da

TTIPI-TTAPA

Hilabete honetako hitzordu nagusietako bat Iskibiko euskal jaia izaten da eta aurten ere ez diote hutsik egin urteroko hitzorduari. Igan-de honetan, irailak 21, ospatuko dute euskal jaia. Beti bezala, taloak jateko aukera izanen da eta 12:30ean Patxi Larretxearekin entrenatzen duen Bidasoaldeko neska taldeak aizkoran eta trontzan erakustaldia eskainiko du. Toka txapelketa ere antolatu dute arratsalderako. Giro alaitzeaz trikitilariak iza-

nen dira. Joan nahi dutenek txartelak Iskibi kanpinean eta Amaia-renean izanen ditu.

Gizarte Zerbitzuak

Gizarte Zerbitzuko langileek mediku etxe zaharrean eskaintzen dituzte bere zerbitzuak. Eraikin honen egoera txarra dela eta, datozen hilabeteetan Paseoko etxeetako lokala prestatzen hasiko da Udala, Gizarte Zerbitzuak bertara pasatzeko.

Udalaren web orria

Udala web orria berritzen ari da eta hau osatzeko herriko txokoen argazkiak biltzen ari da. Horretarako herritarrek beren argazkiak goizuetakoargazkiak@gmail.com helbidera bidaltze-
ra gonbidatu nahi ditu.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Irune Zabala, Zubimuxu aterpea atzean duela.

Irune ZABALA | ZUBIMUXU ATERPEKO ARDURADUNA

«Sartu-atera gehiago izan dira baina talde txikiagoak ibili dira uda honetan»

TTIPI-TTAPA

Eguraldia bezalako uztail motel baten ondotik, «festen inguruan eta abuztu hondarrean mugimendua» somatu dute Zubimuxu aterpean, Irune Zabala arduradunak aipatu digunez. Aurreko urteekin konparatuz, «sartu-atera gehiago, baina talde txikiagoak, bikoteak eta hiru-lau laguneko taldeak» ibili direla jakinarazi digu. Familiak eta mendia bilatzen du-

ten bisitariak dira Goizuetara gehien etortzen direnak eta turismo bulegorik ez dagoenez, Irune berak eskaintzen die informazioa. Bizikleta eta moto itzuliak egiten dutenak ere asko agertzen dira, «azken hauek Alemania eta Holandatik gehien bat». Ora-in, irail polita doa eta udazkenera begira ere badu itxaropenik Zubimuxuko arduradunak: «azienda feria egunean ia bete egin zen iaz».

ARANO

KULTURA → UDAZKENEAN ARGITARATUKO DA

Miaxiria aldizkarirako lanak hilabete honetan entregatu behar dira

TTIPI-TTAPA

Miaxiria aldizkaria prestatzen ari dira eta jakinarazi dutenez, artikuluren bat idazteko-tan direnek hilabete honetan entregatu behar dituzte lanak. Lehenbai-

lehen entregatzeko eskatu dute.

ETB ikustearen aldeko mozioa

Plenoa izan zen irailaren 4an eta ETB Nafarroan ikustearen alde-

ko mozioa onartu zen. Mozio honen bidez, Udalakeskatzen dio Nafarroako Gobernuari LTD bidez ETB Nafarroa guztian ikusteko bide berriak lantzea eta ETB lehenbailehen ikus-

teko behin behineko formulak onartzea. Esaterako, egungo ETBren sare analogikoa digitalizatzea. Mozioa bidaliko zaie Nafarroako Gobernuari, Eusko Jaurlaritzari eta ETBko buruei.

Uraren tasa

Uraren tasa, saneamenduko kanona, ordaintzeko epea zabalik dago. Urriaren 8ra bitarte izanen da ordaintzeko aukera udaletxean.

ARESO

OSPAKIZUNA → IZEN-EMATEA SASTINEAN

Kinto bazkaria antolatu dute urriaren 11n

1960tik 1964 urte artean jaiotakoak elkarrekin

Juana Mari SAIZAR

Kinto bazkari berezia antolatu dute lehenengo aldiz herrian, bost kintek, 1960, 1961, 1962, 1963 eta 1964 urteetan jaiotakoak elkarrekin bazkaltzea baita asmoa. Denek mende erdia bete dutenez, eskolako eta txikitako oroitza penak astindu eta primeran pasatzeko aukera izango dute. Urriaren 11n egingo da bazkaria, Pake Toki Elkartearen 14:00etan. Gonbidapena luzatzen zaie urte horietan herrian jaiotakoei

eta baita orain herrian bizi direnei ere, animatu eta eman izena Sastinean.

BILERA DEIALDIK

Irailaren 18an, ostegunean, etxebizitzaren inguruko bilera irekia egingo da udaletxean 20:00etan. Etxebizitzak eskuratzeko zerrendak ireki aurretik informazio zehatza eman nahi dute.

Bestalde, Baso eta Larreetako hamar urterako plana osatzen ari dira eta azalpenak eman eta ekarpen eta iritzia jasotzeko, bilera antolatu dute irailaren 22an, astelehenean. Nafar Gobernuako arduradunak eta plana egiten ari diren teknikariak bertan izango di-



ARGAZKIAK: ANA GOÑI

VII. mendi martxa oso arrakastatsua

VII. mendi martxa ospatu zen iraileko lehen igandean, aurten 460 lagunek parte hartu dute eta guztia amaitu ondoren antolatzaile nahiz parte hartzaileen hitzak ederrak izan dira aurten ere: eguraldi zoragarria, paraje oso politak, anoa gune oso prestatuak eta bazkariko paella ederra. Datorren urteko mendi martxaren zain geratzen gara guztiok.

ra eta gaian interesa duten herritarrei eta bereziki abeltzainei, eguerdiko 12:00etan udaletxera etortzeko gonbitea egingen zaie.

ZOLADURAREN ARAZOA

Adokinak jarri zirenetik arazoak izan dira zoladuran eta herri erdialdeko zati batzuk oso egoera txarrean daude. Udalak epaiketa abiatu

zuen adokina jarri zuten enpresa eta arkitektura estudioaren aurka eta udalak jakinarazi du epaiketa irabazi dutela. Enpresek errekurtsioa aurkezteko aukera dute orain eta hori eginez gero epeak gehiago luzatuko liriteke herriari egiten zaion kaltea handituz. Udalak epaiketa amaitzean konponketak egiteko asmoa du.



Pertsonaia

Antonio ALUSTIZA

Uharte-Arakilgo artzain txakur txapelketan nagusi

Hiruko bikaina osatzen dutela erakutsi dute beste behin ere Antonio eta Bat eta Jai txakurrek. Uharte Arakilen jokatu zen txapelketan txapel-dun eta txapel-dunorde suertatu ziren. Badirudi Nafarroan ez duela areririk, garai-pen honekin, Nafarroako bere 15. txapela lortu baitu, 11. segidan. Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko txartela ere lortu du. Zorionak! Seguru gaude Euskal Herriko eta Nazioarteko txapelketetan ere bere aztarna utzi eta zeresana eman-go duela. Zorte on!

GIZARTEA

Nafarroako Gobernuak foru-interesekotzat jo du Sarriopapelek Leitzan egingo duen 34 milioi euroko inbertsioa

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak, irailaren 9ko bileran adostu zuen akordioan, Sarriopapel y Celulosa SA enpresaren inbertsio-proiektuak foru-interesekotzat jo ditu; zehazki, enpresak 34 milioi euro jarriko ditu Leitzako instalazioetan paper termiko eta metalizatatuak egiteko ahalmena eta paper horien sorta handitze-ko.

Foru-interesekotzat jotzen dira, zehazki, Nafarroako ekonomia-, gizarte- eta lurraldegarapenerako garrantzitsuak diren proiektuak; adierazpen

hori enpresa- eta lanbide-jarduerak martxan jartzeko izapide administratiboak sinplifikatzeko neurriei buruzko abenduaren 9ko 15/2009 Foru Arauan dago jasoa.

Proiektu horiek ez dute diru-laguntzarik jasotzen, baina izapide administratiboak egiteko denbora erdira jaisten da. Hain zuzen ere, murrizten dira, batetik, jarduera ezartzeko prozedura administratiboak, salbu eskariak eta helegiteak aurkeztekoak; bestetik, hirigintza-plangintza bideratzeko, onartzeko eta egikaritzeko epeak; eta azkenik, o-

brak egiteko eta instalazioak martxan jartzeko baimenak emateko epeak.

1959TIK LEITZAN

Sarriopapel y Celulosa SA enpresa 1959an ireki zuten Leitzan. Lecta izeneko Europako paper-talde nagusienera bateko da. Leitzan guztira 450 langile daude, enpresan batez beste 26 urtean lanean aritu direnak. Gainera, zeharkako 2.250 lanpostu sortzen ditu, paper-sektorean lanpostu zuzen bakoitzeko zeharkako bost sortzen direla kalkulatzeko baita. Egingo den

inbertsioak paper-fabrikako enplegua egonkortu eta jarduerari eustea bermatuko du.

Gaur egun, balio erantsi handia duten eta goi-mailako teknologiarekin landu behar diren hainbat paper berezi egiten dituzte (autokopiatua, termikoa, metalizatua eta distira handiko iztukatua), guztira 120.000 tona baino gehiago.

Horrez gain, enpresak gas naturaleko kogenerazio-instalazio bat dauka, 7,2 Mw-ekoa, eta baita ingurumen- eta energia-ziurtagiriak ere, lehengaita (egurra), ura eta energia modu iraunkorrean kudeatzea ziurtatzeko.

Orain arte, Nafarroako Gobernuak 2,9 milioi euro inguruko diru-laguntzak eman dizkio enpresari.

BAZTAN

UDALA → EZKERRA ETA UPNREN BOTUEKIN ONARTUA

Etxebizitza sozialen ordenantzari alegazioak aurkeztu dizkio EH Bilduk

Etxebizitza sozialak benetan behar soziala duten pertsonen esku geldituko direla bermatzea nahi du

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak esku artean darabilki etxebizitza sozialen ordenantza. Baztanen etxebizitza duin eta egoki bat izateko beharra duten familiak aunitz izanda, eta Baztango Udala etxebizitza batzuen jabetzaren titularrak denez, etxebizitza sozialtzat jo ahal izateko etxe horietan bizi diren familien egoera soziala eta ekonomikoa berrikusteari ekin zioten Baztanen. Hau dena bideratzeko hasi ziren etxebizitza sozialen ordenantza egiten.

Bilduk ordenantzaren zirriborroa prestatu, eta bertze ordezkari politikoei eta herri guztietako alkateei bidali zien ekarpenak egin ahal izateko. Ekarpeneak jaso ondotik, proposamena ekainaren 26ko osoko bilkuran ordenantza proposamena hori aurkeztu zuten. EH Bilduk ordenantza honekin «gaur egun etxebizitza hauetan bizi diren adinez nagusiko jendeak hor bizi izan jarraitzeko aukera izanzen luke, berriz beharrezko baldintza sozioekonomikoak betetzeko gero». Baldintza horiek bete gabe, 75 urte baino gehiago dutenek bertan segitzeko aukera izanzen lukete diru kopuru bat ordainduta. Hala, etxebizitza horien erabilera soziala bermatuko litzatekeela dio EH Bilduk. Baina proposamen hori ezezkua eman zioten UPNk eta Baztango Ezkerrak.

Abuztuaren 28ko Osoko Bilkuran Baztango Ezkerrak bertze ordenantza proposamen bat aurkeztu zuen UPNren ekarpenak gehituz, eta bien botoekin onartu zen. EH Bildu horren aurka agertu zen eta horren arrazoia azaldu ditu.

EH BILDUREN
ARRAZOIAK

Ordenantza horrek zera dio: Eraikinaren erabilaren erabakia, eraikina kokatua dagoen herriaren batzarrean erabakiko du, eta erabakialoteslea izan da. Koalizio abertzalea ados dago batzarrearekin eraikinar eman behar zaion erabilerrari buruz erabakitzearekin, baina bere ustez, «etxebizitza erabilera izan behar badu, etxebizitza soziala izan behar luke ezinbertzean, eta ordenantzak ez du hori bermatzen».

Gaur egun etxe horien titularrak diren eta

bertan azken hamar urteetan bizi izan diren, eta Baztanen bertze etxerik ez duten 65 urteko goitiko pertsonak, hil arte ordenantza honen aplikaziotik salbuetsita egon direla ere bildua du ordenantza eta EH Bildu ez dator horrekin bat: «bidezkoa al da Baztanen etxerik ez, baina kanpoan daukanak edota bertze ondasunak dituenak etxebizitza sozial bat hartzea, inolako etxerik ez daukan pertsona behartu ari aukera kenduz?».

Horrekin batera, ordenantzak dio gaur egun etxebizitza sozialak erabiltzen ari diren pertsonen kasuan, jarraipena izan dezakete non eta bere garaian ematerako orduan erabili ziren kondizio ekonomikoa edo sozialak gaur betetzen badituzte. EH Bildu horrekin ere ez dago ados, «honekin adineko eta elbarrituak diren zenbait pertsona

kalean geldituko liratekeelako».

EH Bilduk salatu du ez UPN eta ez Baztango Ezkerra ez direla Udala Zerbitzu Sozialetako langileen egon: «ez dute beren proposamenak izan ditzakeen ondorioak behar bezala kontrastatu». Koalizio abertzaleak uste du, «ezkerreko ikuspuntu batetik ez dela onargarria pertsonen ondasuna aintzat ez hartzea etxebizitza sozialen eskaera aztertze momentuan, koherentzia falta larria erakusten du Ezkerra talde parlamentarioak lruñean etxebizitza eskubidearen eta justizia sozialaren inguruan egiten duen diskurtsoarekin».

Ordenantza honi alegazioak aurkezteko asmoa adierazi du, «Baztanen etxebizitza soziala benetan behar soziala duten pertsonen esku geldituko direla bermatzeko».



UTZITAKO ARGAZKIA

Mugen ikuskapena, Itsasu eta Ezpeletako udal ordezkariekin

Baztango udalak 2014ko mugen ikuskapena egin du, Itsasu eta Ezpeletako ordezkariarekin. Argazkia irailaren 10ekoa da 76. mugarrari.

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444
M. 629 659 583
ARIZKUN

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Pierreseneea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONÓZ · MUGAIRI

BESTAK → IRAILAREN 20 ETA 21EAN ELIZONDON

Pirinioetako behien lehiaketa asteburuan egingen da

Ortziral arratsaldeko 3etatik aitzinera sar daitezke aziendak Merkaturko Plazan

TTIPI-TTAPA

Pirinioetako behien nazio mailako lehiaketa-ententearen 27. edizioa egingen da irailaren 20 eta 21ean Elizondon. Aipatzekoa da irailaren 19an, ortziral arratsaldeko 3etatik aitzinera abelburuak Merkaturko Plazan sartzeko aukera izanen dela.

Larunbatean 09:00ak baino lehen sartuko dira aziendak eta ordu horretatik aitzinera hasiko dira txanda kalifikatzaileak. Lehenago, 08:30ean, Baztango Aratxearen ibilbide gastronomikoaren inaugurazioa egingen da. 17:30etik 20:00etara behi aziendaren erakustaldia eta komentatutako txanda kalifikatzaileak egingen dira. Iganeko egitarauari dagokionez, 10:00etatik 14:00etara artisau feria egingen da. 11:30ean, Nafarroako aratxea eta Gorramendi gasna dastaketa egingen da. 12:00etan pintxo, salda eta busti lehiaketako sari banaketa. 12:30ean azienda ententea eta 13:00etan azienda lehiaketaren sari banaketa egingen dira. Baztango azindarrik onenak ere sari berezia izanen du, *Bibiren* omenez.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Pirinioetako behirik onenak Elizondon bilduko dira aurtien ere.

IZEN EMATEKO EPEA ZABALIK URRIAREN 4RA ARTE

Haurrendako aisialdi eskaintza ikasturte osorako

TTIPI-TTAPA

Udalak estreinakoz ikasturte osoko aisialdi programa prestatu du haurrendako. Aisialdi programaren helburua hurrei euskaraz gozatu, ikasi eta harremanak egiteko aukera ematea da eta neska-mutikoei eskolaz kanpoko jarduera ludiko eta hezigarrien eskaintza oparoa egingen zaie:

Erratzun baratze, sukaldaritza eta birziklapen eskola, asteazkenero, 15:00etatik 16:45era (5-8 urtekoen-

dako) eta 17:00etatik 18:45era (9-14 urtekoendako), Etxelebert elkartean.

Elizondon Larunblai, ortziralero, 17:00etatik 19:00etara, Arizkunenea Kultur Etxean, 6-12 urtekoendako.

Oronozen Larunblai, bi larunbatetan behin, 17:00etatik 19:00etara, pilotalekuan, 6-12 urtekoendako.

Izena emateko epea irailaren 22an hasi eta urriaren 4 artio luzatuko da. Izena emateko fitxa biltzen duen orria ikastetxeetan partituko da.

FLASH

Pirritx, Porrotx eta Marimotots irailaren 20an Lekarozen

Pirritx, Porrotx, Marimotots eta beraien lagunek Bizipoza ikuskizuna eskainiko dute irailaren 20an Lekaroz Institutuko kiroldegian. Baztan Ikastolako Guraso Elkartek gonbidatuta etorriko dira eta 18:00etan hasiko dute ikuskizuna. Txartelak sei eurotan ondoko tokietan eros daitezke: Elizondon Intza, Axular eta Fantxiken; Donezteben Ekaitza ostatuan; Lesakan Haizea kafetegian; Beran Errekalde ostaldea eta egun berean taldetan.

Amaiurko bestetako zozketa eta errebestak

Amaiurko bestetan egindako zozketaren zenbaki sarituak zein izan ziren jakinarazi dute Amaiurtik. Lehenbiziko saria 5.073 zenbakiari egokitu zaio eta zenbakiaren jabeak bi lagunendako asteburu bateko egonaldia izanen du saritzat; bigarren saritua 1.978 zenbakia da eta honen jabeak bi pertsonendako otordua izanen du Amaiurko Mendialde jabetxean. Sarituek amaiur.herria@gmail.com era idatz dezakete.

Irailaren 19 eta 20an errebestak ospatuko dituzte. Ortziralero 20:00etan herriaren arteko arpana desafioa, afaria elkartean eta martxa goitiko ostaldea. Larunbatean 14:00etan ziklo jatea Frantxisko Santxotenak alaiturik, 21:00etan odolki eta zinger jatea eta 23:00etatik aitzin dantzaldia DANTZADI taldearekin.

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T/F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

BAZTAN

GIZARTEA → ESKUALDEKO UDALEN ESKARIA

Ginekologia zerbitzua Oronozen jartzea eskatuko dute

Uztailaren 4ko uholdeek gogorki kaltetu zuten Elizondokoa eta Burlatara joaten dira orain erabiltzaileak

behar duten mediku arreta jasotzera. Baztan-Bidasoaldeko udal ordezkariak zenbait bileran egin dituzte abuztuaren eta ginekologia zerbitzu hori Nafarroako Gobernuak Oronozen dituen eraikinetako batean ematea eskatuko diote Osasun Kontseilariari.

Aldaketa hori lehenbailehen egitea ere eskatuko dute udal ordezkariak eta horretarako bilera batera deituko dute abudo Marta Vera Osasun kontseilaria. Garbiñe Elizegi Baztango alkateak aipatu digunez, «lehen zegoen tokian ezin da berriz paratu zerbitzua, ez delako toki egokia, luraren mailaren azpitik dagoelako eta berriz ere



ARGAZKIA: ITXASO ARIZMENDI

Errebestak ospatuko dizute Oronoz-Mugairin

Giro ederrean joan ziren Oronoz-Mugairiko bestak eta ordukoak dira argazkiak, baina nonbait besta gogoz segitzen dute eta orain errebestak ospatuko dituzte. Irailaren 27an egingen dute.

urpean gelditzeko arriskua izan dezakeelako».

Abuztuaren 20an eta 29an egin zituzten bileretan, Baztan-Bidasoaldeko udal ordezkariak Oronoz toki egokia litzatekeela adostu zuten. Orain, eskaera horren berri emanen diote Nafarroako Gobernuari, lehenbailehen aldaketa egiteko. Bien bitartean, eskualdeko emakumeek Burlatan jasotzen ahal dute ginekologia zerbitzua, harat-honatek dakarten arriskuarekin eta denbo-

ra galtzearekin. «Zerbitzuaren murrizketa eragiten du horrek, emakume aunitz behar beharrezkoa dutenean ba-

karrik joaten direlako», dio Baztango alkateak. Emagin zerbitzua, berriz, Donezteben eskaintzen dute.

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Osasun Zentroan zegoen Emakumeen Arreta Zentroa gogorki kaltetu zuen uztailaren 4ko uholdeak. Ordutik honat ez dute bertan lanik egiten eta eskualdeko erabiltzaile guztiek Burlatara joan behar dute, haurdunaldirako, errebisioetarako edo bertze patologiak zaintzeko

OSPAKIZUNA → URDAZUBI, ZUGARRAMURDI ETA BAZTAN

Herrietako eskolen besta irailaren 28an egingen da Zigan

Mendi ibilaldiak egingen dira errepetidorera eta Xabat aldera

irailaren 28an egingen dute Zigan, Zigako gurasoek antolatu eta Baztango Udala, BKZ eta Zigako herriak lagunduta.

10:00etan ongietorria eskainiko zaie ikasle, irakasle eta gurasoei trikitilariarekin. 10:30ean mendi ibilaldien irteera izanen da. Ibilaldi luzea

plazatik errepetidorera (2 ordu ingurukoa) eta ibilaldi labura plazatik Xabat aldera. 13:00etan *Ene kanta* ikuskizuna izanen da eta 14.00etan bazkari autogestionatua. 15:30ean dantzaldia izanen da Hauspolariek taldearekin eta atsaldean puzgarriak, besta akitzeko.

NAFARROAKO GOBERNUAREN DEIALDIRIK GABE

Oihan lanetarako laguntza izateko itxaropen gutti dauka Udalak

TTIPI-TTAPA

Azkeneko alean, Nafarroako Gobernuak oihan lanetarako bideratzen dituen diru-laguntzak gero eta murriztagoak direla salatuz hainbat udal ordezkari egindako salaketaren berri eman genuen. Bertan, Garbiñe Elizegi Baztango alkatearen hitzetan, «300.000 euroko laguntzarekin Elizondon gertatutako uholdeen eragina murriztagoa izanen litzateke, erraka bazterrak garbitzeko aukera izanen baitzen» esaldia jarri genuen. Alkateak aipatu digunez, «kopuru zehatza urte tik urtera aldatzen da, batzuetan gehiago izaten da, bertzeetan guttiago». Kontua da, diru-laguntza horrekin erreka eta bide bazterrak garbitzen direla, bertzeak bertze. «Hain zuzen, azken uholdeetan pistak izan dira kalte gehien jaso dutenak, laguntzarik gabe ezinezkoa baita garbiket lan horiei ekitea», dio Elizegik.

Nafarroako Gobernuaren laguntza horiek lanen %70-%80 estaltzen zuten, beraz, kasu batzuetan %20 bakarrik gelditzen zen Udalak ordaintzeko. Aurten, aldiz, ez dute zentimo bakar bat ere jaso eta hemendik urte bukaera arte, jasoko duten itxaropen handiegirik ez du Baztango alkateak: «Laguntza deialdia egiten duten urte berean gauzatu behar dira lanak eta gerta daiteke oraindik deialdiren bat ateratzea, baina denbora gutti geldituko litzateke esleipena egin eta lanak akitzeko, beranduegi izanen litzateke».

TTIPI-TTAPA

Urdazubi, Zugarramurdi eta Baztango herrietako eskolen besta

HARROBIA → IRAILAREN 28AN

SOS Alkerdi Plataformak Xaretako Ibilaldia antolatu du

Kultur ondarea
babesteko eta
Alkerdiko
harrobiak
lezeetan
eragindako
kalteak
salatzeko

Iñigo IMAZ

Ondare kulturala babesteko eta Alkerdiko harrobiak Urdazubiko lezeetan eragindako kalteak salatzeko, SOS Alkerdi Plataformak Xareta Ibilaldia ekimena antolatu du irailaren 28rako. Txangoa plazatik aterako da igandean 00:07etan, baina egun osoan mugari ezberdinak antolatu dituzte, bakoitzak nahi duen edo ahal duenaren arabera parte har dezan. Mugari horietan bilduko dira ibilaldian parte hartzen dutenak eta bertatik ko-

txe zerbitzua ere antolatu dute, parte-hartzaileak beren kotxeetara bueltan eramateko. Mugariak Ainhoan (08:30ean), Senpereko Oihanean (09:15), Sarako Plazan (11:15), Sarako lezeetan (13:15) eta Zugarramurdiko frontoian (14:15) aurreikusi dituzte. Azken honetan, ordubeteko tarte eskainiko da, bakoitzak bere ogitartekoa dasta dezan. Taberna jarriko da frontoian edariak saltzeko. Hortik, 15:15 aldera Urdazubirako bidea hartuko dute, Alkerdiko leze ondotik pasatuz, Urdazubiko plazara 17:15 inguru ailegatzeko. Bertan mintzaldia, ostatua (ogitartekoak eta edariarekin) eta musika izanen dute. 18:00etatik 20:00etara, taxi zerbitzua izanen da, Xaretako mugari guztietara, parte-hartzaile guztientzat, bakoitza bere autora iris-



ARGAZKIA: I. IMAZ

SOS Alkerdi Plataformako kideak kamisetak, pinak eta giltzatak saltzen. Egun bakar batean, 100 kamisetatik goiti saldu zituzten Errotaren Egunean.

teko.

Informazio gehiago nahi duenak telefono hauetara dei dezake: 0034 620486629 (Hegoaldea) edo 0033 625740211 (Iparraldea) eta sos.alkerdimail.com helbide elektronikora idatziz.

PARLAMENTUAN

Bertzalde, irailaren 25ean SOS Alkerdi Plataformak Foru Parlamentuko Mahaiak gonbidatuta, lan bilera bat izanen du Parlamentuko talde guztiekin nahiz prentsarekin. Bilera 10:00etan izanen da, eta

Plataformako bozemaileek Alkerdiko lezeek jasandako erasoaz informazioa emanen die parlamentariei eta Urdazubiko lezeen alde sinatu duten milaka pertsonen aldarria ezagutzera eman ahal izanen dute.



ARGAZKIA: I. IMAZ

Errotaren Eguna arrakastatsua suertatu zen

Errotaren Egunean, musika eta eskulangileen merkatua izan zen egun osoan. Monjeen errota doan eta bisita gidatuen bidez ikusteko parada eskaini zitzaizen bertaratu ziren guztiei. Baztan-Bidasoaldeko erroten artean txandaka egin da Errotaren Eguna, Bertizko Partzuergoak antolatuta. Baztango Infernuko Errotan egin zen iaz eta han jaso zuen lekukoa Urdazubiko monjeen errota zaharrak. Irailaren 7ko ekitaldien ondotik, Amaiurko errotak jaso du heldu den urteko besta antolatzeko ardura.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarinearik
2 km. tara

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

ZUGARRAMURDI

HEZKUNTZA → IKASTURTE BERRIA

Hirurogei bat ikasle hasi dira eskolan

Hauetatik 12 berriak ziren

Margari eta Koro

60 bat haur hasi ziren eskolan Urdazubi eta Zugarramurdi irailaren 5ean. Hauetatik 12 ikasle berriak ziren. Berri pozgarria da azkenean hau, hainbertze haur berri aspaldi huntan ez baita ikusi.

Aipatzekoa da Zugarramurdi eta Urdazubi biko eskoletan lan egiten duten irakasleen lana eta inplikazioa. Ez da erraza bi eskola batera gestionatzea, bata herri batean eta bertzea bertze herri batean, eta bien arteko garraioa, eta hiru maila diferentetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, baita

DBHko lehen zikloa ere). Erraza egiten ez duen bertze gauza da, edozein tokitatik urrun ditugula Xaretako bi herri hauek, bai Baztan aldetik, edo bai Bortzirietatik ere, guttienez oren erdi bateko bidaia daukate irakasleek.

Beraz, ikasturte hasiera honetan, animo aunitz irakasle eta ikasleei (eta nola ez, gurasoei ere).

Sorgin Haizeak

Aurten Julio Caro Baroja sortu zela 100 urte betetzen direla eta, hainbat ekitaldi antolatzen ari dira. Horietako batzuk Zugarramurdi ditugu.

Lehenbizikoa irailaren 20ean izanen da, lezean arratsaldeko



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

ikasle berrietako batzuk lehen egunean, kontent eta urduri aldi berean.

8etan. *Sorgin haizeak* izeneko ikuskizuna eskainiko da (antzerkia, koreografia eta musika), herriko antzerki taldeak eta Berako abesbatzak eskainirik. Horretaz gain, (5 euroko sarrera berarekin) zikiro erretze erakusketa, eta zikiro dastaketa bat izanen dira.

Ondoko larunbatean, irailak 27, arratsaldeko 5etan Museoan, *Barojatarren sorginak* hitzaldia eskaini-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

'Sorgin Haizea' ikuskizuna eskainiko da larunbatean lezean.

ko dute Juainas Paul eta Koro Irazokik.

Eta hirugarrena, Julio Caro Barojari buruzko

Navarra intensa erakusketa. Hau museoan jarri dute irailaren 16tik 30era.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

GIZARTEA → LANEN ONDOTIK

Karrika nagusiko saihesbidea ondoko asteetan idekiko da osoki

8 milioi euro
gosta dira
Pirinio
Atlantikoetako
Kontseilu
Nagusiak
egindako lanak


Franck DOLOSOR

Urguri auzoan barna pasatzen den herriko saihesbidea udazken huntan idekiko da osoki, Utsaleako zubiko itzulbidetik Ama birjinaren itzulbideraino. Artzirin alderat doan lehen partea duela zonbait hilabete zabaldu zen karririkako harat hunaten kopurua apaltzeko. Ora-

in bigarren partearen aldi izanen da aski laster zubiak eta behar diren azpiegitura guztiak kasik prest baitira. Pirinio Atlantikoetako departamenduko Kontseilu Nagusiak egiten dituen lan hauek 8 milioi euro gosta dira. 2015eko udaberrian Herriko Etxeak lerro bakarrean ezarriko du karrika nagusia abiada apaltzeko eta espaloiak zabaltzeko; eta bide batez horko saltegien inguruan giro berria pizteko.

Lanak A63 autobidean

Hiru urteko lanak hasi dituzte berriki Lapurdi zeharkatzen duen



ARGAZKIA: FRANK DOLOSOR

Azpiegitura guztiak kasik prest dira.

A63 autobidean, Biriatu eta Miarritze artean. 22 kilometroko tartean hirugarren erreia eraikiko dute bi norabideetan. Dena den, hautesiak ez dira akort eman Donibane Lohizuneko hegoaldeko ordainlekua kentzeko eta urririk litzatekeen saihesbidea egiteko Donibane Lohizuneko ipar eta hegoaldeko irteeren artean. Bertzalde, aukera galdu da ere irteera berria egiteko Urdazuri alde-

rat zuzenean joateko Donibaneko erdialdetik pasa gabe.

Nicolas gogoan

Urriaren 7an ezagutuko da iazko abenduan autoz haur bat jo eta hil zuen azkaindarraren kontrako auziaren epaia. Bete beharko ez diren 4 hilabeteko presondagi zigorra eta urte batez gida baimena kentzea galdetu zuen fiskalak Baionako auzitegian egin zen epaiketan. Istri-

pua Helbarrun auzoan gertatu zen, Herrixka aldean, mutiko batek bidea zeharkatzen zuelarik oinezkoen pasabidetik autobusa hartzeko. Azkainetik zetorren gidariak ez zuen mutila ikusi goizeko 7h30 baitziren eta argi guti baita gune hortan. Nicolas Lartigue 12 urteko senpertia Baionako ospitalerat eraman zuten helikopteroz baina bertan hil zen oren batzuen buruan.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea



UDAZKEN - NEGUKO KOLEKZIO BERRIA
edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

BAZTAN-BIDASOA

MERKATARITZA → ELKARTE BERRIA

Denok Bat Federazioan bildu dira merkatarikari elkarteak

Bezereen fideltasuna saritzeko deskontuak eskaintzen dituen giltzaria atera dute

TTIPI-TTAPA

Baztan, Bera, Doneztebe eta Lesakako merkatarikari eta zerbitzuen elkartetako bazkide diren 280 establezimenduk bat egin dute Denok Bat Federazioan. Hainbat helburu di-

tu Cedernaren laguntzarekin sortu den Federazioak: «elkartekideak diren profesionalen defentsa egitea eta herritarrei zerbitzu elkartu bat ematea eta horretaz gain, ilusioa zabaltzea, gure herritako bizilagunek bertan bizi eta eros dezaten eta, horrela, guztion artean antolatzeko modu berrietara zabalik dagoen eremua sortzea, landa-eremua ere lehiakorra izan daitekelako erakutsi».

DENOK BAT GILTZARIA
Dagoeneko martxan



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Baztan, Bera, Doneztebe eta Lesakako 280 denda eta zerbitzu biltzen ditu Federazioak. Horietako 43tan eskaintzen dute giltzaria.

den federazioaren lehengo proiektua bezereen fideltasuna biltzeko tresna bat sortzea izan da: Denok Bat giltzaria. Gaugerero 2.600 bizilagunek badute federazioko 43 establezimendutan eskaintzen duten giltzaria, baina ez duenak ere, aski izanen du denda horietako batera jotzea. Tresna honen, bezereok bere

erosketekin puntuak jasotzen dituzte eta horiek hurrengo erosketan alda ditzazkete, deskontuak lortuz. Federazioaren aurkezpenean jakinarazi zutenez, «ekimenaren berri emateko kanpainaren baitan, lehenik eta behin, eta gudan konfiantza paratu duzuenontzan, 3 euroko deskontu-bonua emanen dizuegu, eta

hori irailaren 15tik urriaren 31ra bitarte truka dezakezue giltzatakoea duten dendatan, 20 eurotik goitiko erosketa eginda». Berako 8 dendak eskaintzen dute giltzariaren onurak, Lesakako 6k, Doneztebeko 18k eta Baztango 11k. Federazioaren berriak eta norbere datuak www.denokbat.org webgunean daude.



**Carmen
ORDOKI MITXELENA**

Igantzin, 2014ko abuztuaren 8an, 84 urte zituela

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.*

FAMILIA



Oroigarriak egiten ditugu



ttipi-ttapa

Koskontako bidea, 07-1. | 31770 LESAKA | 948635458



Martzutzak
ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria

...
f Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425

EZKONTZAK

Jon Goizueta Ezkurra eta **Leire Muterria Alduntzin**, Goizuetakoa eta Leitzakoa, abuztuaren 30ean Aralarren.
Miguel Angel Sarobe Zubieta eta **Alazne Sansiñena Lertxundi**, Lesaka eta Elizondokoa, uztailaren 11n Elizondon.
Pello Lasa Elizagoien eta **Nerea Perez Maritxalar**, Lesaka eta Lezokoa, abuztuaren 30ean.
Joseba Etxarte Antzizar eta **Oihana Abuin Pardal**, Lesakakoak, irailaren 1ean.
Ibai Mitxelena Maritxalar eta **Miren Danboriena Olaetxea**, Lesaka eta Iruñekoa, abuztuaren 2an.
Asier Lekuona Iriarte eta **Banesa San Juan Vaquero**, Lesaka eta Berakoa, irailaren 6an.
Mirari Maiz Goñi eta **Aratz Mendizabal Laguardia**, Arantzakoa eta Zaldibikoa, irailaren 6an.
Iñigo Ballarena Galarregi eta **Andrea Rodriguez Telletxea**, Elizondo eta Doneztebekoa, abuztuaren 9an.
Jon Oskaritz Perurena eta **Maria Asuncion Ezkurra Urtxegi**, Baztan eta Doneztebekoa, abuztuaren 23an.



kukuka
KUKU ARROPA BENDA

Denboraldi berria!!

Zazpigurutze, 1
DONEZTEBE
948 450 252

SORTZEAK

Xane Ugalde Agerre, Zugarramurdi-koa, abuztuaren 28an.
Elaia Indabere Sanzberro, Etxalar-koa, abuztuaren 29an.
Larraitx Goñi Aranguren, Arantzakoa, abuztuaren 23an.
Mikel Arraztoa Danboriena, Azpilketakoa, uztailaren 13an.
Oihan Telletxea Urroz, Doneztebekoa, abuztuaren 4an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



Rekordatorioak egiten
ditugu

Nahi duzun argazki eta
testuarekin prestatua

ttipi-ttapa
Kaskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

HERIOTZAK

Lidia Goñi Barberena, Iturengoa, abuztuaren 29an, 76 urte.
Manuela Alduntzin Caballero, Leitzakoa, abuztuaren 29an, 89 urte.
Felisa Iturbide Juanikotena, Azpilketakoa, abuztuaren 30ean, 78 urte.
Maria Isabel Bazo Elias, Doneztebekoa, irailaren 2an, 84 urte.
Pedro Alzuarte Astiz, Berroetakoa, irailaren 3an, 78 urte.
Jose Maria Mitxelena Sagastibeltza Bordazpi, Goizuetakoa, irailaren 8an, 57 urte.
Maria Pilar Urteaga Etxenike, Elizondokoa, irailaren 9an, 81 urte.
Ildefonso Saldias Agesta, Doneztebekoa, irailaren 10ean, 67 urte.



Juan Martin MAIA SANZBERRO

Juana Ariztegi Sanzberroren alarguna
Etxalarren, 2014ko abuztuaren 14an, 93 urte zituela

Udako egun hartan isil-isilik
joan zinen gure ondotik.

Ziur gaude, zure laguntza
izango dugula hor goitik.

Bizi luze eta emankorra
zure arrastoak ugariak dira inguruan,
ederrena, maite zaitugunon bihotzetan,
aita-aitatxi.



Maite AROZARENA BENGOTXEA

Emazte, ama, alaba aparta,
arriba, izeba, koinata xarmanta,
bertzeak laguntzeko prest,
zerbitzaria izatea zen zure amets,
jende aunitzek zaitu zauntzu,
eta orai zutaz ezin atzendu,
ez zinen inoiz ere kexatu,
nahiz eta batzuetan sufritu,
beti irria expaínean eta konten,
beti indartsu eta aitzinat segitzen,
gure ondotik joan zara sobera fite,
baina beti gure bihotzetan egonen zara Maite.



Saia TELLETXEA ZUBELDIA

Igantzín, 2013ko irailaren 17an

Urte bat pasatu da
baina zure irrifarra ez dugu atzendu.

Badakigu izar haundi bat
guri begira eta zaintzen dagoela.

Musu haundi bat Saia,
ez zaitugu sekula atzenduko.

ZURE FAMILIA

Harri-jasotzea hizpide dugunean, normalean Perurenatarren edo Mieltxo Saralegiren irudia datorkigu burura, 300 kiloko harriak altxatzen. Edo Aimar Irigoien ttikia, 5 minutuko

txandatan harri tikiagoak bizi-bizi altxatzen. Baina guttiago badira ere, emakumeak ere aritzen dira harri altxatzen eta horren erakusgarri da Estitxu Almandoz Maia lesakarra.

Euskadiko txapelketan parte hartu zuen abuztuan eta aitzinera begira, Lesakako ferietan 100 kiloko kopa harria altxatzeko asmoa du, marka pertsonala eginez.

Estitxu ALMANDOZ MAIA | Lesakako harri-jasotzailea

«Herri kirolean hasten dira neskak, baina harriak errespetua sortzen du»

Aitor AROTZENA | LESAKA

Duela 29 urte jaio zen Estitxu Almandoz Zala auzoko Arantxene baserrian. Orain bortz urte murgildu zen herri kirolean eta sokatiran, txinga eramaten eta giza-proban ere aritu da. Baina duela hiru urte, Oronoz-Mugairiko Gure Kirolen Kluban entrenatzen ari zela, Sunbilla Unai Bertiz eta Etxalarko Xabier Ariztegi *Santxin* ikusi eta harriarekin proba egitea gogoratu zitzaion. «Egia errateko lehenbiziko saiakerak ez ziren batere onak izan, ez dakizu harriari nondik heldu, nola altxatu, dena beltz ikusten duzu... Baina pixkanaka teknika hartzen joaten zara, hobetuz zoazela ikusten duzu, kilo gehiago altxatzen eta gustoa hartzen diozu», erran digu lesakarrak. Izan ere, teknikak garrantzi handia du harria jasotzerakoan.

Bertze kirolak probatu izanagatik, gaur egun kasik harri-jasotzeari bakarrik emana da Estitxu. Astean behin entrenatzen du Patxi Larretxearekin eta abuztuan egin zen Euskadiko txapelketa prestatzeko Astigarragako Javier Etxeberriaren laguntza ere izan zuen. Hain zuzen, herrietako bestetan eta bertze ekitaldietan hainbat erakustaldi eman baditu ere, Aian jokatu-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Estitxu Almandoz, erakustaldi eta txapelketetan erabiltzen dituen harriekin.

takoa izan da bere konpetizio ofizial bakarra eta hagitx ezberdina dela onartu du: «erakustaldietan lasaiago nengoan, hasieran bai bazu urduritasun puntu bat, baina ez du txapelketarekin zerikusirik, hagitzez estres gehiago sortzen du konpetizioak, epaileak ere hor daude kontrolatzen eta errespetu gehiago sortzen du». Kontuan hartu behar da, kirolaririk ez zegoelako lau urte pasatuak zirela Euskadiko azken txapelketatik. Zehazki, 2008an eta 2010ean bakarrik jokatu dira emakumezkoen harri-jasotze txapelketak. Aurten bi lehiakide bakarrik izan dira eta le-

KONPETIZIOA

«Espero dut datozen urteetan ere txapelketa jokatzeko, konpetiziorik ez bada motibazioa ere ez baita berdina»

ETXETIK PLAZARA

«Behin baino gehiagotan altxatua dut 100 kiloko kopa harria etxean, baina ikusi beharko plazan gai naizen. Harri ttikiekin fondo gehiago behar da, hiru minutuko txandan ahalik eta gehien altxatzeko, baina harri handiarekin, behin altxatuta ere kontent».

sakarra bigarren izan zen, 2010ean ere txapel-dun izan zen Idoia Etxeberria oriotarraren gibelatik. Halere, Almandoz gustura gelditu zen egin-dako lanarekin: hiruna minutuko txandetan 12 altxaldi eman zizkion 87,5 kiloko zilindroari, 10 altxaldi 75 kiloko kubikoari eta 21 altxaldi 62,5 kiloko bolari. «Kubikoarekin zerbaite gehiago egitea espero nuen, baina bi nulo adierazi zizkidaten, baina zilindroarekin eta bolarekin entrenamenduetan baino altxaldiren bat gehiago ere egin nuen», dio. Txapeldunetik urrun xamar gelditu zen arren, hobetzeko entrenatzen segituko duela

adierazi digu eta horretarako konpetitzea ere garrantzitsua dela uste du lesakarrak: «espero dut datozen urteetan ere txapelketak jokatzeko, konpetiziorik ez bada motibazioa ere ez baita berdina». Kirol honetan aritzera emakume gehiago animatzea ere gustatuko litzaioke, «bertze herri kirolean hasten dira neskak, baina harriak errespetu gehiago sortzen du, ez dakit beldurra ematen diene edo lotsa edo ez dakite nora jo, baina egia da gutti ari garela». Alde horretatik, herri kirola gogoko duenak Oronoz-Mugairiko Gure Kirolen Klubera joan eta han ongi aholkatuko dutela aipatu digu.

100 KILOKO KOPA

Estitxu Almandozek harria gustuko du eta aitzinera begira ere horretan segitzeko asmoa du. Erraterako, Lesakako ferietan marka pertsonala egin nahi du, 100 kiloko kopa harria altxatuta. «Behin baino gehiagotan altxatua dut etxean, baina ikusi beharko plazan jasotzeko gai naizen. Harri ttikiekin fondo gehiago behar duzu, hiru minutuko txandetan ahalik eta aldi gehienetan altxatzeko, baina harri handiarekin, behin altxatuta ere kontent, ez da batere erraza», aipatu digu.

MENDI LASTERKETAK → IRAILAREN 7AN BURUTU ZEN SUNBILLAN

Maite Maiora nagusi izan zen 800 Dukado Mendi Maratoian

400 bat emakume bildu ziren, luzera ezberdinetako probetan parte hartzera

TTIPI-TTAPA

Emakumeen Munduko Lehen Mendi Maratoia burutu zen irailaren 7an Sunbillan. Emakumeen artean kirola sustatzea zen probaren helburua eta horregatik maila desberdinetara egokitutako ibilbideak prestatu zituen Abiatu Kirol Klubak, probaren antolatzaileak. Maratoian, 44 partehartzaileen artean Maite Maiora gipuzkoarra nagusitu zen, 42 kilometro luze eta 2.420 metroko desnibela zuen ibilbidea, 3 ordu eta 52 minututan osatu ondotik. Kantabriako Azara García de los Salmones izan zen bigarren bortz minutara eta Laura Sola nafarrak osatu zuen podiuma, 4 ordu eta 12 minutuko lasterkaldiaren ondotik. Sprintean nagusitu zitzaien Leire Fernandez, 16 urteko gazte erreteriarri.

Maratoi Erdiari dagokionez, 105 korrikalarien artean Melissa Gali valentziarra nagusitu zen, 2 ordu eta 10 minutu deborarekin, Dubes Claire frantziarraren (2:12:51) eta Zaldibiko Laida Elizegiren (2:18:46) aitzinetik.

168 metroko desnibela zuen sei kilometroko ibilbide herrikoian, ehun emakume bai-



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Goitiko argazkian, Maite Maiora garaile sartzen helmugan, 42 kilometroko lasterketa burutu ondotik. Beheitikoan, maratoi erdia irabazi zuen Melissa Gali valentziarra, Sunbillako plazara sartzen.

no gehiagoren artean, Pasaia Inma Cruz nagusitu zen (31:08), Gastetiko Arrate Albaina (31:19) eta Uharteko Henar Etxeberriaren aitzinetik (31:29).

21 kilometroko oinezko martxan ere 127 kirolarik hartu zuten par-

te eta 800 metroko haurren lasterketan 140 neska-mutikok.

ARRAKASTA HANDIA

Bere lehenengo edizioan 800 dukadok parte hartzaile kopuru ezin hobia lortu du. Lasterketa zeharkatzen dituen

herrien biztanleen konpromezua eta laguntza handia izan da antolakuntzan. Gainera, babesle gisara, bereziki aktibo izan dira ondorengoak: Sunbilla, Doneztebe, Elgorriaga eta Nafarbeteako Udalak, Nafarroako Gobernua, Lor-

42 kilometro

1	Maite Maiora	3.52:05
2	Azara García	3.57:19
3	Laura Sola	4.12:31
4	Leire Fdez.	4.12:31
5	Elena Calvillo	4.19:29
6	Uxo Irigoien	4.19:58
7	Sandra Sevillano	4.25:52
8	Noelia Camacho	4.26:49
9	Mª Cruz Aragon	4.32:42
10	Nerea Amilibia	4.33:00

21 kilometro

1	Melissa Gali	2.10:00
2	Dubes Claire	2.12:51
3	Laida Elizegi	2.18:46
4	Sonia Alonso	2.23:56
5	Sara Peña	2.26:22
6	Uxue Loizu	2.27:23
7	Izaskun Beunza	2.28:24
8	Hoki Guerrero	2.29:40
9	Josune Labiano	2.30:40
10	Lide Azkue	2.30:50

6 kilometro

1	Inma Cruz	31:08
2	Arrate Albaina	31:19
3	Henar Etxeberria	31:29
4	Ainhua Lasa	31:44
5	Maite Zabaleta	31:57
6	M.Eguzkiagire	32:45
7	M.Undabarrena	32:53
8	Ainhua Arretxea	33:04
9	Teresa Igoa	33:23
10	Maidar Semper	33:27

LASTERKETA BEREZIA

«Berezia izan da, lehen aldiz emakumeak bakarrik aritu gara korrika eta ezin nuen hutsik egin»

Maite MAIORA

800 Dukadoko irabazlea

pen, Elgorriagako Bainenuetxea, Cederna-Galarur, Caja Rural, Ternua, Sunbite, eta Nafarroako Fisioterapeuten Eskola Ofiziala. Lasterketak lehen urratsa eman du bere helburua lortzeko: emakumeen trail-ean erreferente izatea.

ERREMONTA → BURUZ BURUKO TXAPELKETA

Hirugarren finalean txapela lortu du Julen San Miguelek

19-30 irabazi zion Urrizari irailaren 6ko finalean

TTIPI-TTAPA

Hirugarren finalean bai. Buruz buruko erremonteko txapela lortu du Julen San Miguel doneztebarrak, irailaren 6an Galarretan jokatuako finalean Javier Urrizari 19-30 irabazita eta bere betiko ametsa betetz. Duela lau urte, lehen finalean Ezkuraren kontra galdu zuen eta iaz Urrizaberraren kontra erori zen. Aurten, errebantxa hartu eta uste baino errazago nagusitu zen.

San Miguelek eta Urrizak elkarren kontra jo-

katuak zituzten lau partidak Iruñekoak irabaziak zituenek, dirua Urrizaren alde aterazen, baina katedrak ez zuen asmatu. Doneztebekoak sasoi puntu onen dagoela nabarmendu zuen berriz ere eta Urrizak ere, azken aldian bezala, ez zuen bere mailarik onena eskaini. Bi erremontelariak garbi zuten bere plana: San Miguelek sakearekin dominatu nahi zuen eta, ahal zela, piloteo luzerik gabe jokatu. Urrizak, alderantziz, tantoak luzatu nahi zituen.

0-3 eta 1-6 aitzinetik jarri zen San Miguel, bere sakeari esker. 4-7ra hurbildu zen Urriza, baina berriz ere 4-12ra joan zen Doneztebekoa.



Dozena horretatik erdia sakez eginak zituen San Miguelek eta Urrizak ez zekien nola jarri. 8-13ra hurbildu zen berriz ere aurrelaria baina hurrengo zortziak Julenek egin zituen berriz (8-21). 13 tantuko alde horiz zen handiena, baina kasik bukaera arte mantendu zen (14-27). Bortz tanto segidan egin zituen Urrizak (19-27), baina azken hiruak Doneztebekoaren alde erori ziren.

San Miguelek 12 tanto egin zituen sakearekin eta bertze horrenbertze piloteoan. Bortz huts egite egin zituen. Urrizak 4 tanto egin zituen sakez, baita falta bat ere. Piloteoan 10 tanto egin zituen eta honek 5 huts egin zituen.

ARGAZKIAK: MAIALEN ANDRES
San Miguel pilota astintzen, Urriza ondoan duela. Goitiko argazkian, Hondarribiako arraunlariekin ageri da buruz buruko txapeldun berria.



TXAPELDUNAREN IRITZIA

Julen SAN MIGUEL | BURUZ BURUKO TXAPELDUN LEHEN ALDIZ

«Txapel hau irabaztea 30 kilo gainerik kentzea bezalakoa izan da»

Julen San Miguel zoriontsu zegoen finala akitutakoan. «Txapela irabaztea ametsa betetzea da niretzat. Aspalditik nengoen txapelaren bila eta lortu dut. Bi final galdu ondotik, hirugarrenean lortu dut eta hori 30 kilo gainerik kentzea bezalakoa izan da». Doneztebarrarentzat sakean egon zen gakoa: «Hagitz garrantzitsua izan da, min handia egin diot eta banekien

horrela ez genuela piloteo luzerik eginen, nire mesederako». Ongi hasteak ere mesede egin ziola uste du, «oso lasai ailegatu naiz, presiorik gabe. Aurreko bi finaletan urduri nengoen, baina oraingoan ez eta hasierako abantailarekin konfidantza hartu dut».

Urrizak ez zuen bere jokurik onena egin, baina hori bere meritua izan zela uste du San Mi-

guelek, sakearen bidez dominatu baitzuen. Duela 13 urte hildako amaz gogoratu eta hurbilekoei eskaini die txapela, «Doneztebe eta Errezilgo familiari eta baita beti hurbilean ditudan lagunei eta Jon Ezama botilleroari ere».



HERRI KIROLAK → NAFARROAKO TXAPELKETA

Bera eta Arraioz taldeek txapel bana lortu dute Herriz Herri Txapelketan

Berdinketa hausteko proban irabazi du Berak

TTIPI-TTAPA

Hiru jardunaldi jokatu ondotik, Nafarroako Herriz Herri Txapelketaren finala jokatu zuten abuztuaren 30ean Berrioizarren. Bi proba konbinatutan lehiatu ziren taldeak: lehenbizikoan lokotx biltzen, zaku lasterke-

tan, aizkora, lasterka eta arpanean aritu ziren eta bigarren proba konbinatuan txinga eramaten eta ingude altxatzen.

Lehen proba konbinatuan, Arraiozko taldea nagusitu zen 17:32.19ko denbora egin ondotik. Proba honetan bigarrena Berako taldea izan zen (18:07.31); hirugarrena Menditarak taldea gelditu zen (18:07.98) eta laugarren Berrioizar (19:36.95). Bigarren proba konbina-



ARGAZKIAK: NAFARROAKO HERRI KIROL FEDERAZIOA

Herriz Herri Txapelketan aritu diren Arraiozko taldea goian eta Berakoa behean.

tu txapela Berako taldearentzat izan zen eta bigarren postua Berrioizarrentzat. Baina Bera eta Berrioizar taldeak seina puntu eskuratuta ber-

dindu egin zuten eta berdinketa hori hausteko bertzeko proba bat egin behar izan zuten. Zozketa bidez aukeratu zuten proba eta txingena atera

zen. Txinga proba Berak irabazi zuenez, txapela beratarrentzat izan zen. Hirugarren Artzanegi taldea gelditu zen eta laugarren Menditarak.

MENDI BIZIKLETA → IRAILAREN 21EAN ETA 28AN

Lesaka, Bera, Bidasoa eta Plazaolako martxak egunotan

Konpetiziorik gabe bizikletan ibiltzeko aukerak eskainiko dituzte datozen bi igandetan

TTIPI-TTAPA

Mendi bizikleta maila duenak ez du asperzeko aukerarik izanen egunotan. Irailaren 21ean, Beti Gazte elkarteak antolatutako Lesakako mendi bizikleta ibilaldia eta Bertizko Partzuergoak Behobia eta Bertizen artean antola-

tutako Bidasoko Bide Berdearen martxa egingen dira. Irailaren 28an, berriz, Gure Txokoak antolatutako Berako Mendi Bizikleta ibilaldiaren 22. edizioa eta Plazaolako bide berdearen martxa egingen dira (VIII. Maratoi Erdiarekin batera).

Lesakan bi ibilbide eskainiko dituzte aukeraren igandean: 45 kilometro luze eta 1.700 metroko desnibela duena luzeena eta 34 kilometro luze eta 1.100 metroko desnibelekoa laburrena. Igandean 09:00etan abiatuko dira txirrindulariak eta

08:00etatik 08:45era izanen dute izen emateko aukera (10 euro federatuek eta 15 euro federatu gabekoe).

Egun berean, Bertizko Partzuergoak Bidasoko Bide Berdetik VII. BTT martxa proposatu du Behobia eta Bertiz artean (42 km.). Haur eta familientzako ibilbidea ere izanen da, Sunbillako garbitegitik aterata (15 km.). Izen emateak egun berean egin daitezke (helduek 10 euro eta 8-14 urtekoak 8 euro ibilbide luzean eta 5-3 euro laburrean), baina Bertizeko parkinetik Behobiako ir-

teera puntura garraioa nahi duenak irailaren 18ra arte erreserbatu dezake partzuergoan.

Beran ohiko ibilbideak izanen dituzte hila- ren 28an, 09:00etan abiatuta, baina alderantzizko norantzan, «politagoa eta gogorxeagoa» antolatzaileen ustez. Ibilbide luzeak 33,5 kilometro ditu eta laburrak 22 kilometro. Hurren ibilbidea (ibilbide ttikia) ere desberdina izanen da aurten. Haundiak atera ondotik, hurren furgonetan Landagaitara goitu eta bertan emanen diote hasiera ibilbide ttikiari.

FLASH

Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa

Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketaren kanporaketa irailaren 21ean jokatu da Uharteko Toki-Alai pilotalekuan, 17:30ean hasita. Zortzi aizkolari ariko dira lanean: Floren Nazabal (Etxarri Arantz), **Jon Rekondo (Leitza)**, Juan Jose Lopez (Lezaun), **Ruben Saralegi (Leitza)**, **Ander Erasun (Aurtiz)**, **Donato Larretxea (Arantz)**, **Oihan Larretxea (Bera)** eta Julen Kañamare (Arostegi). Berte aldetik, irailaren 13an jokatzekoa zen Aian Euskadiko lehen mailako kanporaketa, Jon Rekondo, Ander Erasun eta Ruben Saralegiren partehartzearekin.

irailak 18 - urriak 2

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Ikuskizunak

LEKAROZ | 2014.09.20
Pirritx, Porrotx eta Marimotots Lekarozen
Bizipoza ikuskizuna eskainiko dute Lekaroz Institutuko kiroldegian, 18:00etan. Baztan Ikastolako Guraso Elkarteak antolatu du eta sarrerak salgai daude.

Ospakizunak

ITUREN | 2014.09.20
Joaldunen Eguna irailaren 20an ospatuko dute
Goizean joaldunak baserrietan ibiliko dira eta eguerdian aizkora apustua eta bertsolarien saioa izanen dira. Herri bazkariaren ondotik, arratsaldean dantzaldia izanen da.

Ospakizunak

LEITZA | 2014.09.21
Talo eguna eginen dute irailaren 21ean
10:00etan hasiko da talo azoka. Artisauen lanak ere izanen dira eta Leitzako neska-mutilak herri kiroletan ariko dira. Erakusketa eta tailer gehiago ere izanen dira.

Erakusketak

ZUGARRAMURDI

Julio Caro Barojaren inguruko erakusketa

Irailaren 15etik 30era

Navarra intensa erakusketa Sorginen Museoa.

SARA

Artisau erakusketa

Irailaren 19tik 25era
Lur Berri gelan.

OIEREGI

Diana Iniestaren margo erakusketa

Iraila eta urrian Bertizko Natur Parkean.

Hitzaldiak

ZUGARRAMURDI

Julio Caro Baroja gogoan

Irailaren 27an Koro Irazoki eta Juainas Paul Arzakekin *Barojaren sorginak* Sorginen Museoan (17:00).

BERA

Julio Caro Baroja gogoan

Irailaren 19an Jose Antonio Azpiazu Elorzarekin *Julio Caro Baroja: gizona, zientifikoa,*

euskalduna hitzaldia Beralandetan (19:30). **Irailaren 26an** Fermin Leizaola antropologoa-rekin etnografiari buruz Beralandetan (19:30).

ETXALAR

Lacturaleren eskutik

Irailaren 19an *Esneki-en garrantzia gure osasunean*, 18:00etan Kultur Etxean.

ESKUALDEA

Bidaziren bilerak

Irailaren 30ean Arantzako Ekaitza Elkarte-an, 19:00etan.

Irailaren 26an Berako Beralandetan (19:30).

Ikastaroak

BAZTAN

Aisian euskaraz

Urriaren 4ra arte apunta daiteke Baztango Udaleko Euskara Zerbitzuan, urritik ekainera izanen diren ikastaroetan. Erratzun *baratze, sukaldaritza eta birziklapen eskola* eta Elizondon eta Oronoz-Mugairin *Larunblai*.

Eguzkiloreren ikastaroak

Irailaren 26ra arte eman daiteke izena.

URDAZUBI

Guraso eskola

Urriaren 7, 14 eta 21ean sexu heziketaz.

LEITZA

Energia jardunaldiak Atekabeltzen

Irailaren 25ean energia burujabetasuna. **Urriaren 1ean** Goiener kooperatibaren aurkezpena. **Urriaren 8an** Etxeko fakturak nola irakurri eta kontratatu.

Dantzak

SUNBILLA

Dantza jaialdia
Irailaren 26n.

Kontzertuak

IRURITA

Ahots kontzertua

Irailaren 27an Colegio del ilustre Colegio de Médicos de Navarra Jauregian, 19:30ean.

Ikuskizunak

ZUGARRAMURDI

Julio Caro Baroja gogoan

Irailaren 20an *Sorgin haizeak* lezean (20:00).

LEKAROZ

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Irailaren 20an Institutuan 18:00etan.

BERA

Ertz jaialdia

Irailaren 19ra arte.

Ospakizunak

ITUREN

Joaldunen Eguna
Irailaren 20an.

LESAKA

Haurren Eguna
Irailaren 20an.

LEITZA

Talo eguna
Irailaren 21ean.

ETXALAR-SARA
Usategietako besta
Irailaren 21ean.

ZIGA

Eskolen besta
Irailaren 28an.

Bestak

URROZ

Sanmigelak
Irailaren 26tik 29ra.

IGANTZI

Sanmigelak

PROPOSAMENA

IGANTZI-URROZ

Sanmigelak ospatuko dituzte Igantzin eta Urrozen

Herriko besten lekukoa Igantzik eta Urrozek hartuko dute, bietan sanmigelak ospatuko baitituzte. Igantzin besta aitzinetik ere ekitaldiak izanen dituzte, herriko dantzarien saioa eta Artzain Zakur Txapelketa, erraterako. Halere, ofizialki irailaren 26tik 30era izanen dituzte bestak. Urrozen, berriz, irailaren 26tik 29ra ospatuko dituzte.



Irailaren 20an, 21ean eta 26tik 30era.

ETXALAR

Urritzokietako bestak

Irailaren 14an eta 21 eta 22an.

SENPERE

lbarrungo bestak

Irailaren 26tik 29ra.

ORONÓZ-MUGAIRI

Errebestak

Irailaren 27an.

AMAIUR

Errebestak

Irailaren 19 eta 20an.

DONEZTEBE

Besta tikiak

Irailaren 19tik 21era.

Azokak

LEITZA

Merkatarien azoka

Irailaren 13 eta 14an.

SARA

Bertako produktuen azoka

Irailaren 25ean.

ELIZONDO

Batzango artisau azoka

Irailaren 21ean.

Lehiaketak

ELIZONDO

Pirinioetako behien lehiaketa-enkantea

Irailaren 20an eta 21ean.

Kirola

URDAZUBI

Ondarea babesteko mendi ibilaldia

Irailaren 28an.

ESKUALDEA

BTT martxak

Irailaren 21ean Lesa-ka eta Bidasokoa.

Irailaren 28an Plazaola eta Berakoa.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Gogoz kontrako turista batek bidaiak zergatik ez dituen maite azalduko du; bere bizitza gorabeheratsua azkenetan dela jakinik, gaztetan gauzatu gabeko maitasun haren kapitulua amaitu nahiko du herrira itzuli denak; besteen traumak osatzen lan egiten duen psikologoak gogora ekarri beharko du, nahi ezta ere, ahazturaren zokoa bazterturiko atxiloteta hartan gertatua... Azken urteetan idatzitako bortz kontakizun hauetan, noraezean dabilzan pertsonaiak marraztu ditu Xabier Mendigurenek, arantzak zaharren bat atera behar dutenak edo bere baitako gabeziak nola izendatu ez dakitenak. Epika goitarrak bukatuak diren gaurko Euskal Herrian badirelako itxi gabeko zauriak, nonahi eta noiznahi bezala sentimenduz umezurtz diren gizon-emakumeak.

Musika



Noraezean

SU-ETENA

2014

Baztanen sortutako musika taldea dugu Su-etena, Joniko Berho (bateria eta ahotsa), Urko Baraibar (baxua) eta Iker Plazak (gitarra eta oihuak) osatua. Eta aurten *Noraezean* izeneko lana argitaratu dute, bederatzi abesti hauekin hornitu dutena: *Noraezean*, *8719600510*, *Dimisioa*, *Materialistak*, *Zertarako Bozkatu?*, *Konzientzia*, *Guda Arrazista*, *Entxufeak* eta *U.P.N (Utzi Pakean Nafarroa)*. Diskoaren grabaketa eta nahasketa 2013ko urrian eta azaroan egin zuten Elizondoko Txokoto auzoan eta Mikel Biguria eta Candi Fernandez izan zituzten ondoan laguntzeko. Diskoaren azalaren irudia, berriz, Aritz Irigoienek egin da eta horrez gain, zenbait abestitan kolaborazio batzuk ere izan dituzte disko honetan: Dama taldeko Txominena *Noraezean* abestian eta Ufestuek taldeko Xabirena *U.P.N* kantan.

Internet



Berako mugei buruzko audiogida

WWW.MUGAKOBIDEAK.COM

Berako Udalak bultzatu duen mugari buruzko audio-gida da Mugako Bidea, eta areago, muga-marra- ren gainetik doan mendi ibilaldia. GPS teknologiadun telefonoaren laguntzaz mendiko xendetan barrena oinez goazela, mugarekin lotura zuzena duten bi gairen inguruko istorioak aditzeko aukera emanen du: kontrabandoa eta gerrako gotorlekuak. Android sistema operatiboa duen telefono mugikorretan Mugako Bidea aplikazioa dohainik instalatu daiteke web orritik eta ibilbidea norbere telefonoarekin egin. Halakorik ez duenak Berako Turismo Bulegoan lau aparailu izanen ditu eskura. Haiek erreserbatzeko Turismo Bulegora deitu edo bertara agertu behar da. Hainbat lagunen kolaborazioa izan du proiektuak: Asier Gogortza, Iñigo Telletxea, Xabi Erkizia, Xavier Balderas, Luca Rullo, Kike Diez de Ulzurrun, Alberto Barandiaran, Gaizka Sarasola, Reyes Iñitxeta, Sustrai Colina, Maikel, Iñigo Irazoki, Dani Irazoki, Xan Harriague, Miguel Artieda, Manuel Agirre, Luis Altzuguren...

Nire aukera



Miren ARIZTEGI

Urrozko gaztea

«Urrozko bestak aukera ona dira azkeneko zortzikoak dantzatzeko»

Landare, mendi... eta Lorokorrean «natura gustuko» du Mirenek. Afizioa ofizio bihurtu nahi du gainera, biologiako 4. ikasturtea hasi berria baitu Salamankako unibertsitatean. Denbora librean «uda bada lagunekin afaldu, bestara ate eta hurrengo eguneko atsaldea Leurtzan pasatzen dugu. Denbora txarra- rekin berriz, etxean geratu eta pelikula bat ikusten dut». Bidaitzea ere gustatzen zaio, «atzerri-ko eta baita inguruko toki bereziak ezagutzeko» eta afizio merkea ez den arren «ahal den moduan saiatzen» da zerbait egiten. Bisitatutako tokien artetik «Florentzia» azpimarratzen du «bi aldiz egon naiz eta berriro itzuli- liko nintzateke». Orain herriko besten esperoan dago, «besta haundiak ez diren arren, plaza giroa gustatzen zaionaren- tzat aukera ona dira azke- neko zortzikoak dan- tzatzeko» erran digu. Be- re ustez «lehenbiziko egu- na» da politena, «hala ere hori adinaren arabera al- datzen da». Etorkizunaz galdetuta berriz, bi eska- ri ditu, «gustuko lan bat lortu eta ingurukoak eta ni kontent bizitzea».

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONÓZ-MUGAIRI. Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Bero-gailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi Pta/ 100.000 €. ☎948 585036.

ANZABAL

INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

LESAKA. 98 m²ko pisua salgai. 3 logela, bainugela 1, egongela su bajuarekin, sukaldea despentsarekin eta mobleztatua. Igogailua eta buelta osoan balkoi ederrarekin. Bizitzera sartzeko prest. ☎609 445769.

ETXALAR. Borda bere lur eremuarekin salgai. ☎661 121540.

BERA. Etxebizitza atxikia salgai. 200m². 3 solairu, kalitateko materialak, 4 logela, 2 bainugela, garajea (27 m²) eta lorategia (75m²). 3 autorentzako aparkalekua. 350.000€ (prezio negoziagarria). Deitu 19:00-etatik aurrera. ☎636 880115.

ELIZONDO. Santiago karrikan pisua salgai,

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

trastelekua, garajea eta igogailuarekin. Oso argitsua. Balkoi haundiak. 2007koa, estreinatu gabea. 71,78m²koa, 2 logela, sukalde-jangelazabala eta bainugela bat. Material onekin egina. Prezio merketua: 121.000 euro. ☎665 706228 / 948 618933.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

DONEZTEBE. 2 logelako pisu argitsua errentan emateko. Prezioa: 300 euro. ☎667 334139 / 618 834892.

IRUÑEA. Pisua errentan emateko, bi unibertitateen artean. Oso argitsua eta leku lasaian. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Prezio onean. ☎639 401147.

LESAKA. Eltzeta karrikan 85 m²ko pisua errentan

tan emateko. Oso argitsua, sukaldea, egongela, 3 logela, 2 bainugela eta 2 balkoiekin. Mobleztatua. ☎629 480624.

ALMUÑECAR. Granda-ko kostalde tropikalean partikular batek bi pertsonentzako apart-hotela errentan ematen du. Hondartzako lehen lerroan, ongi ekipatua, terraza, bista ederrak, klimatizatua, igerilekuak. Irailarako eskuragarri. ☎658 943702.

BERA. Legia karrikako 1 zk. pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun, egongela eta trastelekuarekin. Arras argitsua. ☎678 363398 / 678 305250.

BERTIZARANA. Baserria errentan emateko, baratzerako sarbidearekin. ☎678 957094.

DONEZTEBE. Duplexa errentan emateko. Su-

kaldea, egongela, komuna eta 2 logela. 350 euro. Pisua estrenatzeko dago. ☎674 847735.



ITUREN. Etxea edo pisua errentan emateko. Leku lasaia. ☎680 456866.



IRUÑEA. Pisua errentan emateko. 4 gela, argitsua, igogailua, kale-fakzio zentrala. ☎662 376520.

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

BERA. Pertsona batek pisua edo etxea errentan hartuko luke Bera inguruan. Ez du zertan mobleztatua egon. ☎687 609684.

LESAKA EDO INGU-RUAN. Pisua errentan hartu nahi da. ☎647 233690.

GARAJEAK/LOKALAK

erosi

LEITZA. Bajera bat erosi-ko nuke Manuel Lasarte kalean edota herrian bertan. ☎606 273534.

GARAJEAK/LOKALAK

salgai

LESAKA. Eltzetako plazan lur azpiko garajea salgai. ☎646 774117.

LESAKA. 93 m²ko bajera salgai, Koskontako Bidea 11n. Etxebizitza egiteko aukerarekin. Gasa, ura eta argindarra sartuak ditu. ☎609 445769.

LEITZA. Manuel Lasarte kalean garajea salgai. Argia, ura eta leihoarekin. ☎680 754174.

GARAJEAK/LOKALAK

errentan emateko

BERA. 110 m²ko bajera errentan emateko, erdialdean. ☎657104991.

LESAKA. Albistur eta Bittirian garaje bana errentan emateko. ☎618 962937.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(abuztuaren 29tik irailaren 5era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 42 € (=)

Zerri gizena
1,390 € kilo. (-0,020)

Zerramak:
0,690 € Kg/bizirik. (-0,020)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,22
1.koa 4,02
2.koa 3,84

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,32
1.koa 4,06
2.koa 3,89

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 120,00
idixkoak 238,00

Aretze nabarrak:

urruxak 140,00
idixkoak 160,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,00/3,10
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 6,70/7,30
8-10 kilokoak: 5,50/6,20

ELIZONDO. 100 m²ko lokala errentan emateko, osorik edo zatika. **626 021643.**

LESKA. Eltzetako plazan lur azpiko garajea errentan emateko. 20 euro hilabetean. **629 480624.**

ZERBITZUAK zurgindegiak

ARANTZA
Zurgindegia.....
• Klase guzietako zurgin lanak
• Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe
Jose Miguel Errandonea
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gorritze - ARANTZA

ZERBITZUAK denetarik

Haur eta helduentzako pintura, ingeles eta informatika tailerrak Elizondo, Erratzu, Doneztebe eta Zugarramurdi. Neurria prestatutako ikastaroak. **659 948926** - dianainiesta@hotmail.com. Bertze tailerren, edukien eta ordutegien informazioa: <http://pin tayrepinta.blogspot.com> edo www.dianainiesta benedicto.com.

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua
948 272011 (IRUÑA)
948 580975
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

LANA eskaintzak

BERA. Auzoa ostatuan, zerbitzaria behar da neguan asteburuetan lan egiteko. **948 631584.**

IRUÑA. Familia ugari batekin lan egiteko lagun bat behar da. Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Espe-rientziarekin eta konfiantzazkoa. **646 268472.**

ULTZAMA. Ultzamako Bentan zerbitzaria behar da. Lan finkoa. **948 305128.**

BIDASOA ETA BERROARAN MENDIETAKO BILTZARRA

Oihan aprobetxamenduen enkantea

Nafarroako Aldizkari Ofizialean (177 zk., 2014ko irailak 10) oihan aprobetxamenduen enkantearen berri ematen duen iragarkia argitaratu da. Plegu itxien bidezko enkantea da, honako oihan aprobetxamendu hauek emateko:

LOTEA	ALDERDIA	ZUHAIKZ MOTA	MOZKETA MOTA	KOPURUA	BALIOSPENA
1	Altsuperea	Intsinis pinua	Azken bakanketa	813	13.727,08 €
2	Espelosin	Intsinis pinua	Azken bakanketa	4055	69.406,78 €

Hasierako prezioa: aurreko taulan lote bakoitzera adierazitako balorazioa, BEZa kanpo.

Behin-behineko fidantza: lote bakoitzaren tasazio balioaren %2

Eskaintzak aurkezteko tokia eta epea: proposamenak Doneztebe Udalaren erregistroan aurkeztuko dira 2014ko irailaren 30a baino lehen.

Baldintza teknikoak eta administratiboak agiriak: interesdunen eskura daude, Biltzarraren Idazkaritzan, Doneztebe Herriko Etxean, eta Kontratazioaren Atarian.

Doneztebe, 2014ko irailaren 11n
Presidenteak,
Miguel San Miguel Azpiroz

LANA eskariak

ESKUALDEA. Interna edo orduka lan egiteko emakumea eskaintzen da. **602 419047.**

ELIZONDO INGU- RUAN emakumea lanerako prest: garbiketa lanak egiteko, adinduak zaintzeko... orduka betiere. **606724914.**

BIDASOALDEA. Orduka lan egiteko prest: garbiketa lanak (portalak, negozioak...), pertsona helduak eta haurrak zaintzeko... **602 473794.**

Emakumea garbiketa lanak egiteko edota haurrak edo pertsona helduak zaintzeko prest dago. **673 372938.**

Haur Hezkuntzako ikasketak dituen **emakume euskaldunak** arratsaldeetan lan egiteko, haurrak zaintzen edo edozein lanetan. **663 695410.**

Emakumea lan bila dabil: garbiketa lanak, haur edo adinduak zaintzen... **680 781632.**

Emakume euskalduna lanean ariko litzateke, etxeko lanak egiten, dendetan reponitzen... **680 781632.**

ELIZONDO. Pertsona bat edozein lan egiteko prest dago: baserri lanetan lagundu, adineko pertsonak zaindu, mantentze lanak... **618 686388.**

MOTORRAK salgai

Motorra crossekoa salgai, 250cc ktm. 2007. urtekoa. Egoera onean. Prezioa: 2.500 euro. **646 294905.**

Citroen C5 HDI salgai, 2002koa. Prezioa: 1.500 euro negoziagarriak. **629 534928.**

ANIMALIAK oparitzeko

Euskal artzain zakurkumeak oparitzeko. **667 766290.**

Katakume maitagarriak oparitzen dira. Ama ehiztari bikaina. **660 928563.**

Katakumeak oparitzeko. **948 580231.**

LEITZA. Lau zakurkume oparitzeko, ama ardi-zakur bikaina. **697 321871.**

ANIMALIAK salgai

Border Collie arraza-

ko zakurkumeak salgai. **661 767027.**

Oilagor ehiztari onen se- tter zakurkumeak salgai. **618 962653.**

4 ahari mutur gorri salgai. **626 660675.**

DENETARIK salerosketak

ORONZO. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritz. Etxera eramane da. **676 242520.**



SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. **659 867287/ 699 461394.**

Merkatu Ttikiko
iragarki gehiago
hurrengo orrialdean
ttipi-ttapa

**SANTESTEBAN
TAILERRAK**
12.500€
LAGUNA III PRIVILEGE
DCI 150 CV
62.000 km - Nabigatzailea
6 marxa, klimatizagailua...
10.600€
MEGANE SPORT TOURER
DYNAMIQUE DCI 110 CV
2011 urtekoa
67.000 km
13.950€
CLIO IV DYNAMIQUE
DCI 90 CV
2014 urtekoa
Nabigatzailea, klimatizagailua...
Leitzako errepidea **DONEZTEBE**
T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

GANIX
Tailerra
Iturlandeta, 6 BERA (NA)
948 63 06 69

Iraileko
zk. saritua
4.185
Zonaldeko
produktuekin
osatutako lotea.
Sarituak hilaren
30a baino lehen
deitu behar du
Bortzirietako
Hiri Hondakinen
Mankomunitatera
948 63 52 54

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,37€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez



Zorionak nire anaia **ARITZ** eta nire birramatxi **MARIARI** abuztuaren 30ean urteak bete dituztelakoz. Muxu haundi bat Eñauten partetik.



Zugarramurdiko **MARKEL OTXOTEKO MIHURAK** 3 urte bete ditu irailaren 10ean. Zorionak koxinero! Eta ea bizkotxo goxo-goxo bat prestatzen diguezun! Muxu haundi bat!



Berako ANER DEL POZO RIO-PEDREK irailaren 11n 3 urte bete ditu. Zorionak eta aunitz urtez. 3 muxu potolo familia guztiaren partetik.

hemen
agertu
nahi
duzu?

egin zure erosketa.

www.ttipi.net

argazki
soila

4

EURO

aldizkarian
interneten

argazki
bikoitza

8

EURO

948 63 54 58 • info@ttipi.net ^{edo} www.ttipi.net

Spinning-eko bizikleta berria salgai. ☎635 875730.

Abuztuaren 28an Al-
kaigako poligonoan
Samsung Galaxy Mini II
telefonoa galdu nuen,
frontoiaren parean. Go-
mazko funda urdina
dauka. Norbaitek aur-
kitu bazuen, aunitz es-
kertuko nioke buelta-
tzea. ☎636 583034.



Ohea salgai, koltxoi eta guzti. Egoera eta prezio onean. 1,05 metrokoa,

LIDERRAK GURE ESKUALDEAN

eta baita azterketa
egiterakoan CIESeK

Nafarroa Garaiko mendialdean

hartu duen 111 udalerrien
eremuan ere



ttipi-ttapa

Ttipi-Ttapa^{rekin} zure iragarkiak
eragin haundiagoa du

TTIPI-TTAPA

28.000 irakurle

- D. NOTICIAS 17.000 irakurle
- D. NAVARRA 11.000 irakurle
- GARA 9.000 irakurle
- MARCA 4.000 irakurle
- BERRIA 2.000 irakurle
- EL PAIS 1.000 irakurle
- EL MUNDO 1.000 irakurle
- BESTE BATZUK 8.000 irakurle

Sexuaren arabera

GIZONAK %40,20
EMAKUMEAK %59,80

Adinaren arabera

14-24 urte %13,50
25-34 urte %16,70
35-44 urte %18,50
45-54 urte %21,30
55-64 urte %11,80
+ 64 urte %18,20

Ikasketa mailaren arabera

IKASKETARIK GABE %4,90
LEHEN IKASKETAK %9,80
LANBIDE HEZIKETA %24,30
BATXILERGOA %34,60
UNIBERTSITATEA %26,50

Datu iturria:
CIES 2014ko 1. neurketa





ttipi txartelarekin beti irabazten da !

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK

~%25eko DESGRABAZIOA ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea 7 LESAKA

T. 948 635 458 | F. 948 635 457

info@ttipi.net

www.ttipi.net

ZOZKETAK

622 ALEKO IRABAZLEAK

KAMISETA BAT | Onddo Ta Punto

Nekane Maia | **ARANTZA**

ARKUPE LOTEA | Arkupe

M^a Jesus Etxandi | **ELIZONDO**

LIBURU BAT "Espaziotik etorria" | Ibaizabal

Maider Nabarro | **ERRATZU**

Juan Jose Petrikorena | **ELIZONDO**

Garbiñe Iguaran | **BERA**

TXANTXARIAK DVDa | Urtxintxa

Estibaliz Lizasoain | **ELIZONDO**

2 SARRERA | Irrisarri Land

Ainara Mindegia | **AURTITZ**

2 SARRERA | Aquarium

Arantxa Elizondo | **BERA**

1

2 LIBURU
Ibaizabal argitaletxea
www.ibaizabal.com



2

LOTEA
Martiko
www.martiko.com



3

HARPIDETZA HILABETE 1
Berria egunkaria
www.berria.info



berria^{info}

4

2 LIBURU
Elkar argitaletxea
www.elkar.com

elkar



5

2 SARRERA
Sorginen lezeak
www.turismozugarramurdi.com



6

2 SARRERA
Donostiako Aquariuma
www.aquariumss.com

DONOSTIA / SAN SEBASTIAN
AQVARIUM



DESKONTUAK



BERA | %10 matrikulan

FANTXIKE

ELIZONDO
%10, 30€tik gorako gastuan

Amaia
irudi eta estilismo zenitroa

DONEZTEBE | %5 kosmetikan %10 oparietan 50€tik gora. Promozioetan ez

Agara
kirolak

BERA | %5 kirol artikuluetan

oreka
nutrizioa eta dietetika
belardenda

LESAKA
%5 kontsulta eta produktuetan

jaione tindategia

DONEZTEBE
%10, 12€tik gorako gastuan